

## Alex Txikon lemoaztarrak ezin izan dau tontorra egin Everesten

14. orrialdea

## Ruth Linaza tiralariak Munduko Txapelketako lau domina lortu ditu

Badaiotz taldeagaz bi, eta beste bi selekzioagaz. Irlandan jokatu zan Sokatirako Mundu Txapelketea zezeilean. Badaiotz taldeak urrezko domina bi lortu ebazan 540 eta 500 kiloko kategorietan. Linazak zidarrezko beste bi be eskuratu ebazan, Basque Country ordezkaten. 15. orrialdea



## Ekhi eta Lur Ziarrusta anaiak Bizkaiko txapeldun trinketean

15. orrialdea

TOKIKOM

# begitu

arratia ubide zeberio

# 335

2020ko martiaren 3a  
hamabostekaria  
www.begitu.org

## Leticia Gutierrezek Europako migrazio politikak salatu dauz

**A**rtean egon zan Mexikoko Leticia Gutierrez Valderrama, migratzen dabenen eskubideen defendatzaile ezaguna eta BEGITUguz egin eban berba. Europa eta Ameriketako bardin antzeko migrazio politika hiltzaileak erabilten di-tuela, mugak kanporatu eta militarizetan

dituenak, eta defendatzaileen aurkako indarkeria eta desprestigiatzea salatu ebazan.

Europako mugak zarratutearen ondorioz, Balkaneetan, Turkia eta Greziaren arteko mugan eta Greziako irtetako errefujiaduen larrialdia ikusita, ezinbestekoak bilakatu dira Gutierrezen berbak. **8., 9. eta 10. orrialdeak**



## Arratiako feministak burrukarako prest



**A**urten "Arratiarrok antolatuta, borroka feministarako" lemapean batuko dira Arratiako feministak, andren eskubideen aldeko burrukan antolatu beharreko premia azpimarratzeko. Aldarrikapen horregaz joango dira martiaren 8ko Bilboko manifestaziora. Arratian eta Zeberion, Andren Nazinoarteko Egunaren inguruan, hainbat jarduera prestatu ditue feminismoaren beharra eta indarraren barri emoteko. Berbaldiak, antzerkiak, zinea, mendi martxea... aprilera arte heltzean dan egitarau oparoa, hain zuzen be. **7. orrialdea**

### ARRATIA

## Zaborren kudeaketeagaz kezkatuta konzentrazioa egin zan Lemoan

Zezeilearen 20an, ingurumenagaz arduratutako Arratiako herritar batzuek konzentrazioa egin eben Lemoan. Izan be, Zaldibargo zaborte-giaren luiziaren ondoren, Eusko Jaurlaritza Zaldibargo hondakinentzako leku bila dabil. Lemoan, bide ofizialetatik ez zala egon Bistibietara ekar-teko proposamenik esan eutsan BEGITUri Lemoako alkateak. Igorren, barriz, zabortegia kudeatzen dauan enpresek Jaurlaritzaren dei ugari jaso ebazala azaldu eutsan Igorreko alkateari. **5. orrialdea**



### IGORRE

## Kaltetu eta adituak alkarte bat sortu dabe GASaren ondorioak aztertzeko

Existiduten ez dan, baina beste izen batzukaz Administrazioan erabilten dan Guraso Alienazioaren Sindromeak umeengan dituan ondorioak ikertzeko sortu da alkarte. Bertan disiplina askotako adituak batzean dira. Aitaren aldetik umearenganako tratu txar edo sexu abusu salaketea dagoanean, umeari sinistu ez, eta amak umea erabilten dauala aitaren kontra ipinteko da, alkarte profesionalak onartuten ez daben Guraso Alienazio Sindromea. **5. orrialdea**



### ARRATIA

## Arratian autopista elektrikorako torreak egiten hasi da REE

Foru Aldundiak baimenik emon ez arren, Igorren barbarako, REEK torre bat egin dau. BFAK, urtailaren 14an emondako Foru Agindu baten, REEri, Bizkaiko Lurralde Historikoan energia garraiatzeko 400 kv-ko zirkuitu bikotzeko Gueñes-Itsaso linea baimentzeko eskareari ezezkoa emon eutsan. Ha-ta guzti be, egun batzuk berandua-go, REE torre bat egiten hasi zan Igorrebasa inguruan. Hori dala-eta, Igorreko Udalak BFAko Ingurumen Sailari eskatu deutso neurriak hartzeako baimenik ez daukien obrak gelditu arazoteko. Sai zuriaren babeserako legea ez dau beteten Igorren eregiten dabilen torreak. **7. orrialdea**

# Literatura txokoa

## KIKARAKADA

Hiru alkartetako (Diapositivisme Studio, Gaztezulo eta Zaporeako) eragile banak (Galder Izagirre, Gaizka Izagirre eta Oraitz Garcia) hauspotutako proiektuaren emaitza dogu eskuarteko argazki-errezeta testuliburu hau, kikara buztarri dalarik. Itsasgarria: txokolatea. Eta helburua: Lesbos greziar irlan dagozan ume errefujiaduai, egun baten sikeraz, kikara bete txokolatek aho gozamenari zirkin egin deiola.

Liburuaren salmentak umeon hezkuntza ahalbidetuko dauan aukera sustatzea dau jomuga nagusizat, hori eguneroko bizitzarako baliabidea da-eta, danok ondo baino hobeto dakigunez.

Umeen txokolate dastatze umeak argazkiz betikotu dira,

errefujiadu zein euskal umeen motz-motzeko irudiak atxikiz, euren uneko adierazkortasuna islatuz bizi daben egoera zeingura dalarik.

Argazkioi, gatz-piper egiteaz batera, 40tik gorako eragile, bertolari eta abarren testuak tartekatatu jakiez osagarri baino biribiltzeago dan astinaldiaz, tajukera eta sabore ugariak bertan ondud.

Atzenerako baina ez bazterrerako, era askotako errezeta, horretarako txokolatea izanik edabe liluragarria arrunt-arrunta jakun arren.

On egin zentzu bietan, gozamenak eta alkartasunak ez daukielako zertan bananduta joan.

**Hik Ikara-Kada**

**Erredakzioa eta argazkiak:**  
**Galder Izagirre**

**Eragileak: Gaizka Izagirre, Galder Izagirre eta Oraitz Garcia**

**Kikarakada**

**Donostiako Komunikabideak EM**

**207 orrialde**



### TELEFONO INTERESGARRIAK

#### Larrialdiak

Galdakaoko Ospitalea 94 400 70 00  
SOS DEIAK 112

#### Guardiako Farmaziak

**09:00etatik 22:00etara**  
**Martiaren 2tik 8ra**

Badiola. Artea. Herriko Plaza 7  
Tel.: 94 631 73 11 eta 629 463 048

**22:00etatik 09:00etara**

Melero. Amorebieta-Etxano.

**Martiaren 9tik 15era**

Ibarrola. Zeanuri. Arregia kalea 1  
Tel.: 94 673 93 95 eta 620 262 937

**22:00etatik 09:00etara**

Sarasketa. Amorebieta-Etxano.

**Martiaren 16tik 22ra**

Ibarrola. Zeanuri. Arregia kalea 1  
Tel.: 94 673 93 95 eta 620 262 937

**22:00etatik 09:00etara**

Iruarizaga. Amorebieta-Etxano.  
Zeberioako ez dau guardiarik egiten.

**Urte osoan**

**22:00etatik 09:00etara**

Zoco Robles. Urbi 15. Basauri.

#### Medikuak

**Arantzazu:** 94 631 56 89

**Artea:** 94 673 92 11

**Areatza:** 94 631 71 52

**Bedia:** 94 631 34 13

**Dima:** 94 680 19 74

**Igorre:** 94 600 74 63

**Lemoa:** 94 631 31 16

**Ubide:** 945 38 50 14

**Zeanuri:** 94 673 91 49

**Zeberio:** 94 648 20 79

#### Udaletxeak

**Arantzazu:** 94 631 56 89

**Artea:** 94 673 92 05

**Areatza:** 94 673 90 10

**Bedia:** 94 631 42 00

**Dima:** 94 631 57 25

**Igorre:** 94 631 53 84

**Lemoa:** 94 631 30 05

**Ubide:** 945 45 03 22

**Zeanuri:** 94 673 91 46

**Zeberio:** 94 648 10 79

#### Udalen Mankomunitatea

94 631 17 17 / Faxe 94 631 92 15

#### Gorbeialde

94 631 55 25 / Faxe 94 631 71 01

**Parketxea** 94 673 92 79

**Igorreko Kultur Etxea**

94 673 62 51

**Gorbeialde Irratia**

94 631 52 90

**Euskotren** 94 433 33 33

**Areatzako Notarioritza**

94 673 92 26

#### Bizkaibus 94 612 55 55

**Zeanuri-Lemoa-Ospitalea-Bilbo**

Lanegunetan: Lehenengoa 05:00etan.

Ordu erdiro: 05:15etik 06:45era.

Orduro: 06:45etik 21:45era. Azken zerbitzua 22:00etan.

Zapatuetan: Lehenengoa 05:00etan.

Orduro: 05:45etik 21:45era.

Jaiegunetan: 07:45etik 21:45era orduro.

**Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Zeanuri**

Lanegun eta zapatuetan: 06:15etik 22:15era orduro.

Jaiegunetan orduro 07:15etik 22:15era.

**Durango-Lemoa-Ospitalea-Bilbo**

Lanegun eta zapatuetan: 06:30etik

22:30etara 30 minuturo, azkenengoa

22:15ean Galdakaoraino.

Jaiegunetan: 07:00etatik 22:00etara 30

minuturo, azkenengo zerbitzua 22:45ean

Galdakaoraino.

**Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Durango**

Lanegun eta zapatuetan 06:30etik 22:30era

30 minuturo.

Jaiegunetan 07:00etatik 22:30era 30

minuturo.

**Ubide-Otxandio-Lemoa-Bilbo**

Ubidetik urteerak, lanegun eta zapatuetan:

06:45etik 20:45era bi ordurik behin.

Jaiegunetan: 08:45etik 20:45era bi ordurik

behin.

**Otxandiotik urtekerak:** Lanegun eta

zapatuetan: 06:55etik 20:55era orduro.

Jaiegunetan: 08:55etik 20:55era orduro.

**Bilbo-Lemoa-Otxandio-Ubide**

Lanegun, zapatu eta jaiegunetan,

Otxandiora: 06:45etik 20:45era orduro.

Ubidera: 06:45etik 20:45era bi ordurik

behin.

**Zeanuri-Lemoa-Bilbo**

**(Autopistatik)**

Lanegunetan: 07:00etan lehena, eta 08:15etik

21:15era orduro.

Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

**Bilbo-Lemoa-Zeanuri**

**(Autopistatik)**

Lanegunetan: 07:00etatik 21:00etara orduro.

Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

**Zeberio-Ugao**

Lanegun eta zapatuetan:

Zeberiotik: 7:00, 08:20, 09:10\*, 11:00, 11:45\*,

14:10, 15:00, 16:10, 18:30\*, 20:20.

\* Basauriraino (Ariz) heltzean da.

Gainontzekoak Ugaoraino. Jaiegunetan ez

dago zerbitzurik.

**Ugao-Zeberio**

Lanegun eta zapatuetan:

Ugaotik: 8:40, 10:20, 11:20, 14:30, 16:30,

19:40.

Basauritik (Ariz): 10:00, 19:20. Jaiegunetan ez

dago zerbitzurik.

**Artea-Zeberio-Ugao**

Lanegun eta zapatuetan: 6:50, 8:00\*, 14:00,

16:00.

\* Igorretik urtetan da bost minutu lehenago.

Jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

**Ugao-Zeberio-Artea**

Lanegun eta zapatuetan:

Ugaotik: 7:20\*, 13:05, 15:30, 20:40.

Basauritik (Ariz): 12:45.

\* Igorreko Instituturaino heltzean dira.

Jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

**Ermitabarri-Arrigorriaga**

Jaiegunetan: 8:10, 11:10, 14:10, 17:10, 20:10.

**Arrigorriaga-Ermitabarri**

Jaiegunetan: 10:20, 13:20, 16:20, 19:20.

**La Union 94 427 11 11**

**Bilbo-Gasteiz**

Lanegunetan: Ubidekoak 09:15ean urtetan

dau eta Otxandioakoak 16:00etan.

Zapatuetan: Ubidekoak 09:00etan eta

16:30ean urtetan dau Bilbotik.

Jaiegunetan: Ubidekoak 10:00etan urtetan

dau eta Otxandioakoak 18:30ean.

**Gasteiz-Bilbo**

Lanegunetan: Ubidekoak 09:00etan eta

16:15ean urtetan dau Gasteizetik eta

Otxandioakoak 10:30ean.

Zapatuetan: Otxandioakoak 10:30ean urtetan

dau Gasteizetik eta Ubidekoak 16:30ean.

Jaiegunetan: Ubidekoak 16:30ean urtetan

dau Gasteizetik. Otxandioak ez dago.

#### Babesleak:



Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

**Bizkaia**  
foru aldundia  
diputación foral



**Argitaratzailea:** ZERTU Kultur Elkartea.

**Helbidea:** Herriko Plaza 24, 48142 Artea.

**Telefonoa:** 94 631 73 14.

**Helbide elektronikoa:** [begitu@topagunea.com](mailto:begitu@topagunea.com)

**Webgunea:** [www.begitu.org](http://www.begitu.org)

**Zuzendaria:** Iñigo Iruarizaga.

**Erredakzio burua:** Beatriz Azpiri. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 112.

**Erredakzio taldea:** Ane Rilo.

**Maketazinoa:** Beatriz Azpiri eta Iñigo Iruarizaga.

**Publizidatea:** Iñigo Iruarizaga. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 115.

**Banaketea:** Leire Inuntziaga eta Laiene Pagazaurtundua (Arantzazu, Artea eta Ubide), Ibai Milikua (Areatza), Unai Agorreta eta Xabier Beitia (Bedia eta Lemoa), Amaia Uriarte (Dima), Iker Perez eta Eguzkiñe Zuluaga (Igorre), Iratxe Arribas (Zeanuri), eta Berbizkunde Arroita (Zeberio).

**Tiradea:** 7.300 ale.

**Inprimategia:** Iparragirre Editoriala.

## ZEURE BERBEA

### Gure zabortegia

Beste modu batera izan ezin eitekenez eta gitxi bagendu bezala, Zornotzako biztanleok be badogu geure zabortegi partikularra, Lemoako Bistibieta auzoan, baina Kortederra auzo zornotzarraren ondoan.

2002an zabaldu zan hondakin geldoen eta inertizaduen zabortegi hori, eta urte asko daroaz kutsatzen eta usain txarrak eragiten. Bertan isuri ez danaz gainera, egiaztatuta dago Prestige-ren txapotea, "Behi eroak" erre osteko hondakinak eta erraustegien hondakinak zabortegi horretan dagozala.

Kiratsa inguru guztietara zabalduen da, Boroa auzora eta haizeak nondik jotzen dauan gure herriaren erdigunera be bai. Zornotza ibaia, zabortegiaren ondotik igarotzen dan Ibaizabalen adarra, leitekena da kutsatuta egotea, zabortegi horretako libixbiaduen filtrazioak dirala eta.

Zabortegi horrek arazoak sortu ditu hasikeratik; izan be, 2012an, Zornotzako Udalak zabortegiaren jarduera modu "aktibo eta eraginkorren" ikuskatzeko eskatu eban, eta, aldi berean, gure herriko bizilagunak jasaten eben kiratsa amaituteko "neurri zuzentzaile"ak

ipinteko eskatu eban.

Lemoako alkarte ekologista bategi zabortegia ixteko eskatu eban 2014an, eta Eusko Jurlaritzak ezarritako neurri zuzentzaileak ez eban bete. Urte horretan bertan, Zornotzako udalbatzak mozino bat onartu eban, non neurri zuzentzaile barriak eskatzen ziran edo zabortegiko instalazioak kaltetaz zarratutea, usain txarrak zirala eta. Bizkaiko Batzar Nagusiak be urte horretan bertan eskatu eben zabortegi horrek sortzean dituan usain txarrak desagertu arazoteko.

2020. urtean, usain txarrak jarraitzen dabe, zabortegia gainezka dago eta 2023ra arte hondakinak isurtzen jarraitzeko lizentzia dauka.

Baina hemen ez da ezer gertatzen, Zaldibarren bezala pasau arte, beti nonor hil behar da (beti langile prekarioak) neurriak hartu daitezkan? Zergatik ez dau Urkulluk argazkia aterako zabortegiaren aurrean, enpresen inaugurazio guztietan egiten dauan moduan? Airearen eta uraren neurketa faltsuakaz engainetan jarraituten dabelako?

Zergatik jarraitzen dogu babes barik personok lehenengoak geu garala aldarrikatzen daben erakunde horreen aurrean?

**XABIER GUTIERREZ CABALLERO ETA MARI KARMEN DUDAGOITIA TELLERIA**

Zure eretxia agertu gura badozu, Zeure Berbea atala zabalik daukazu. Ez da komenidu makinazko 15 lerro baino gehiago idazterik gutunotan. Izena, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezkerreko, BEGITUK eskubidea dauka horretarako. Gutunak hona bidali: Zertu Kultur Elkarte. Herriko plaza, 24. 48142 Artea edo [begitu@topagunea.com](mailto:begitu@topagunea.com) helbidera.

## GEURE BERBATEGIAREN LEIHOTXUA

ANGEL LARREA ETA JUAN REKALDE

### Azbizar



Personearen eskuko zein hankako atzamarretako atzazala babesteko haren ondoan urtetan dan azal zuriagoari esaten jako azbizar edo atzbizar (asbiserra, ahoskatuta). Batuan, erpuruko da. Askotan entzun izan da kaltzio falteagaitik asko hazten dirala, baina egia dana da atzazalak jan ostean bai, orduan bai, ateraten dala indartsuago azbizarra. Hona hemen adibide hau: "Atzamarrean daukadan azbizarra min emoten hasi jata!".

## ERETXIA

### Zientzia-fikzinoa gurean

Oindino badagoz iraganera begira bizi diran euskaldun asko, larregitxo nire gusturako. Horreek eztabaida amaitu ezinetan tinta ugari isurtzen dabe Veleian, Deobrigan edo eta Calahorra zaharrean euskeraz egiten zala erakusteko; eta bide batez, bape aurrekari zeltarik ez genduala errime baieztatzen. Ondo. Nire zainetatik euskal odol arrastorik ez dabilenez -nirea gehiago da Alpeetakoa- eta euskaldun berantiarra nazan lez -hamasei urte bete arte ez neutsan euskerea ikasteari ekin- libre nago balizko eta ustezko iragan horreetatik guztietatik.

Zer esango deusuet, aukean gurago dot orainean bizi eta etorkizunera begiratu. Ez dakit horregaitik izango ete dan, gure izatea iragan horretan bilatu gura izan dogulako edo, baina, literatura zalea be nazan neurrian, atezino emoten deust ikusteak zer gitxi lantzean dauan zientzia-fikzinoa gure euskerazko literatureak. Datu bat akordura ekarri behar dogu, zientzia-fikzinoa da munduan irakurle gehien daukan estiloa, amodiozko narratiba larrosa eta *thriller* poliziakoaren ostean. Oro har, genero literario deitutakoak dira irakurle gehien erakarten dabenak. Horretaz be eztabaida luzeak euki izan dodaz, ea euskal literatureak genero horreek guztiak bere egin beharko eban. Erantzuna argi daukat, horregaitik nik neuk polizia-eleberria eta genero erotikoa landu dodaz, euskeraz landu be. Generoen defendatzaile sutsua nozue. Ez dira, dinodan lez, zientzia-fikzinoa landu izan daben egileak, gehienak, gainera, ume eta gazte literatura arloan jardun izan dabe. Daborduko urrun lotu da Iñaki Zubeldiaren ha liburua, *Euskaldun bat Marten* (1982) genero honetako lehen euskeraz. Salbuespen duin bakarra Maddi Pelot zana aitatu geinke, okzitaniar euskaldun ho-



**ALVARO RABELLI**  
Irakaslea eta idazlea

nek Baionako Maiatz aldizkarirako *Biharko oroitzapenak* (1985) eta *Teleamarauna* (1987) zientzia-fikzinozko ipuin bildumak idatzi eban. Atzen urteotan emoten dau generoa bultzatzeko ahaleginak egiten dirala, aiko Asel Luzarragaren *Karonte* (2005) eta *Bioklik* (2018) eleberriak. Halanda be, oindino gitxitxo dira.

Zientzia-fikzinoak beti erantzun deusot jendarteko ezinegonari, Armagedonari deusagun bildurrari. Teknologia aurrerapenak, muturreko aldaketa ideologikoak edota itzelezko hondamendi naturalak, besteak beste, eragiten deuskue ezinegon hori. Zientzia-fikzinoak arrisku horreetaz ohar-tarazoten deusku, eta garrantzitsuena, arriskuoi aurre egiteko neurriak edota balizko konponbideak eskaintzen ahalegintzen da. Oraina etorkizunean proiektatua. Teknopatia gailentzen danean, zabortegiak kolapsatzen diranean, aldaketa klimatiko apokaliptikoa hurreratzen danean, demokrazia autoritarioa nagusitzen danean eta jente gosetiaren uroldeak gure hesiak botateko zorian dagozan honetan era guztietako konponbideak behar doguz. Euskerazko zientzia-fikzinoak be emongo ahal deuskuz!

**BATZ 50 urte**

BATZ, S. KOOP.  
Torrea auzoa, 32  
48.140 IGORRE (BIZKAIA)

**IZAN GINAN...**

**...BAGARA ETA IZANGO GARA**

Enbata  
Batzen gaitu

MONDRAGON 5000

**LUMATUTEN**



**JUAN MANUEL  
ETXEBARRIA**

**Txorien zoria**

**G**ure Euskal Herrian era askotako txoriak daukaguz, nagusiena saia eta txikiena txepetxa. Txori batzuk bertokoak doguz eta beste batzuk sasoika datozenak edo-eta migratzaileak. Hegaztiok, "txori" izenez ezagutzen doguz, baina jatorrizko berbea "zori" da. Hasikera baten "zori" esan arren, denporearen podasuz, berba horren hasikerako /z/, bilakatzeko joan da: z>x>tx, hau da, zori>xori>txori ahoskatzeraino, sabaiketa hipokoristikoa bidez.

Gaur egun, jatorrizko "zoria" badarabilgu baina "suerte" zentzuagaz, horra hor: zorion / zorioneko / zoritxar / zoritxarreko / zorigaitzo / zorigabeko eta abar. Kasu honeetan, "zori", izatez, txori, da baina erromatar aztien interpretazioen arabera, eskoiko "zoriak" baikorrak ziran eta ezkerrekoak ezkorak. Bizitzaren joanean, "zori" berbea kontzeptu mailarako darabilgu, eta "txori" hegazti arrunterako.

Udabarrirantza, txoriak habiaginen hasten dira eta aldi bateko ume-jolas ezagun bat genduan "txoritopetan" ibiltea. Gure ume-tako txori preziauenetariko bat zozoa zan. Zozoetariko bat, martizozoa zan eta berori zan lehengo habiaginen hasten zana. Normalean, sasitzan egiten eban habia eta ez zan erraza aurkitzea. Zozoa, txori hazitxoa zan eta jan be egiten zan. Gaur oster, babestuta dago eta nahinon ikusten dira tiragoma, tranpa, txinbera eta eskopeten bildur barik. Zozoaren inguruan esaerak be sortu dira. Aikomenzan batzuk: *zozoa kantuan, udabarria onduan; zozoak beleari ipurbeltz; zozoak ez dau beti sasi berean kantatzen; zozokerietan dabilena, zozo edo alper hutsa; zozo lumorraztubako* eta abar. Zoria berbeak lez, zozoak be badauka bere forma hipokoristikoa: xoxoa.

Gaur egun sano aldatu da txorien mundua. Uritartu egin gara eta ez dago lehengorik. Babesak babes, txorien munduak ez dau hobera egin. Gure historiara begiratu, aspal ditxoan sortzean gagozan aldaketa eta kutsadurearen ondorioz, eskastu egin jakuz gure txori autoktonoak, eta gure biosfera sano zaintzen ez badogu, denporeak agertuko deusku edurra mendian. Zein izango ete da gure txorien zoria?

**ZERTZEAN**



**AINHOA MENDIA**



**BEGI TXINDORRA**

**O**latua zinan Joxe Mari, braust eta braust etenbarik herria josten saiatu zinan olatua, ez zinan aparra, joan-etorrian desgertzen dan bitsa. Indar eragilea, tantakada bakotxa tentuz jagoten zenduan, euskal itsaso hezitzaile barri bat sortzeako asmoz. Goxoa, baikorra, maitagarria eta kementsua. Dimesten zara, eta zuk gura zenduan Dima eta Euskal Herria eregiten jarraituko dogu.

Eskerrik asko.

**Ibon Iza Totorika**

Zelan ametsak gurean beti zabaldu daitezken zu izan zinen lehenengo gure herrira iristen ilusioa zabaltzen eta gela uzten azken... Herrigintza indargune ta jolasa irakaspen Joxe Mari mila esker gaude hazten eta hazten Herritik herriarentzat zuk emandakotik hezten zuri eskerrak gabiltza Diman guztiok DIMESTEN.

Joxe Mari Auzmendiren omenez.  
Dimesten Herri Hezitzailea

**Gorosti** Lorategien Diseinu eta Gauzatzea  
Ureztaketa instalazioa  
Mantenua eta Inausketa

Bidosola Industrialdea E2 Pab. 48.142 Artea  
Tel: 94 673 96 34 Faxa: 94 673 96 88  
gorosti@gorostiscl.com

**agoa** Ortodontzia  
Implanteak  
Estetika

Marina Urigoitia Aldekoa  
Ondarregia

Bidebarri 1, behea  
48140 Igome-Bilakala  
T. 94 631 50 39  
kalegitu Zurbela 100  
R.P.S. 21/06

**ASESORIA  
Gorbeialde**

Juridikoa · Fiskala · Lanekoa · Kontularitza

Askatasun 28, 1B 48143 Areatza  
Tfnoa: 94 673 92 93 Faxa: 94 673 92 82  
E-posta: gorbeialde@gorbeialde.com

Lehendakari Agor 22  
**ETROITZ**  
Agortzen gurean zuzen.

## IGORRE

# Alkartea sortu dabe Administrazioak seme-alabak kendu deutsezan amak eta disziplina anitzeko profesionalen artean

Alkartearen helburua, existiduten ez dan, baina erabili egiten dan Guraso Alienazio Sindromearen erabilereari eta umeengan daukazan ondorioai buruzko ikerketak egitea da.



Igorren egindako jardunaldietako hizlariak.

### Erredakzioa

GASaren kaltetuak, osasun arloko profesionalak, hezkuntzakoak, gizarte lanekoak, kazetariak eta alkarte zibilak osotuten dabe taldea. Igorreko Irune Costumero dago bultzatzaileen artean; baita, zezeilaren 15ean, Igorren egindako jardunaldian parte hartu ebenak be. Hau da, Enrique Stola, Argentinako psikiatra, Plataforma Lunako Ester Ruiz erizana eta Enrique Martinez filosofoa, beste batzuen artean.

Aitaren aldetik umearenganako tratu txar edo sexu abusu salaketa dagoanean, umeari sinestu ez, eta amak umea erabilten dauala aitaren kontra ipinteko da ezelango alkarte profesional onartuten ez dauan Guraso Alienazio Sindromea. Ha-ta guzti be, erakundeak eta epaitegiak erabilten dabe beste izen batzukaz. Hau erabili izana egozten deutso Bizkaiko Probintzia Auzitegiak Foru Aldundiari, Irune Costumeroren aldeko autoan.

### BFAkoak epaiketearen zain

2017ko abuztuaren 4an, Bizkaiko Foru Aldundiko Gizartekintza Sailak indarrez kendu eutsan bost urteko alabea Irune Costumero Igorrekoari, tutoretzea bere gain hartzeako eta behin-behineko egonaldia aitari emoteko. Bizkaiko Probintzia Auzitegiak "delitu zan-

tzua" ikusi ebazan horretan eta Foru Aldundiko Haur Saileko lau arduradun eta langile inputau ebazan. Antonia Giner Cucalella, Balorazino eta Orientazinoko Zerbitzu burua, Consuelo Alonso Vergara, Haurtzaro Zerbitzuko burua, Sergio Murillo Corzo, orduan Autonomia Pertsonala Sustatzeko zuzendari nagusia Gizarte Ekintza Sailean eta oin Gizarte Ekintzako Diputadua, eta Maika Uruxurtu Cueva gizarte langilea dagoz inputauta, eta Bizkaiko Foru Aldundiari be "jagokan" erantzukizuna egozten deutso autoak. Lehenengo aldia da, haur zerbitzu bateko arduradunak akusaduen aulkian jarriko dirana.

Autoa irmoa izan arren, umeak jarraituten dau amarenera bueltau barik, epaiketearen zain.



## ARRATIA

# Igorre eta Lemoako zabortegetara Zaldibargo hondakinak ez ekarteko eskatu dabe udalak eta herritarrak

Zaldibargo zabortegearen luiziaren ondoren, Eusko Jaurlaritzak Zaldibargo hondakinentzako leku bila egoala jakinda, zezeilaren 20an, ingurumenagaz arduratutako Arratiako herritar batzuk konzentrazioa egin eben Lemoan.

### Erredakzioa

Zaldibarren hildako bi eragindako istripua bera, hildakoak artean agertu ez izana, eta zabor eta zabortege inguruan dagozan iluntasuna eta kontrol publiko faltea salatu ebezan bertaratutakoak.

Konzentrazioan Saioa Elejabarrieta Lemoako alkatea be egon zan. Hedabideetan, Zaldibargo hondakinak Lemoan dagoan Bistibietako zabortegeira eroatea posibilitate moduan agertu zan, baina alkateak bide ofizialeatik ez jakiela zentzu horretan informaziorik heldu esan eban. "Bistibietako zabortegeko zuzendaritzaegaz eta Eusko Jaurlaritzaregaz ipini gara kontaktuan eta ez deuskue esan Lemoara ekarriko dituenik" azaldu eutsan BEGITURI alkateak.

Arratian, Erkidegoko zabortege nagusienetako bi dagoz: Bistibietako Lemoan eta Deydesa Igorren. Zabortegetara sartzean diran hondakinaren kontrola eta ebatzia Eusko Jaurlaritzak eta zabortegea kudeatzen dauan zabortegearen dira. Horretan udalak ez daukie ebatzirik. Ha-ta guzti be, euren lurretan zabortegeak daukien herritako alkate biak azaldu deusie BEGITURI kontaktuan dagozala zabortegea kudeatzen dauan enpreseagaz eta Eusko Jaurlaritzaregaz.

### Bistibietako hatsa dariola

Bistibietako zabortegea, industria hondakinentzako zabortegea da eta inguruko herritarrak urteak daroet botaten dauan hatsagaitik kejaka. Zabortegea, Lemoatxen ostean dago eta Lemoako lurre-

tan, baina hatsa ez da zabalduten Lemoatik, Galdakaoko Kortederra eta Zornotzako Boroatik baino. "Hatsaren jatorria lixibiaduak dira. Oin dala urte batzuk bai ipini ziran neurri zuzentzaile batzuk hatsa gitxituteko baina egia da, hor jarraituten dauala" dino Lemoako alkateak.

Zabortegea 2002an zabaldu zan eta funtzionamentuan jarraituten dau. "Oindino ez da bete onartutako proiektuan aurreikusten zan lekuraino eta horregaitik jarraituten dau funtzionamentuan" azaldu deusie BEGITURI Udaletik.

### Deydesa

Garbikerrek Igorren eukan uri hondakinaren zabortegea zarratu zanean, bertako lur batzuk Grupo Otuari saldu eta bertan, hondakin ez arriskutsuen Deydesa zabortegea ipini eben. Zabalduteko lizentzia 2009an izan eban zabortege honek. Igaz, 2019an, 360.976 tona hondakin jaso ebazan. Gehienak (%70 inguru) Grupo

Otuak sortutako zaborrak ziran.

Illart Gumuzio Igorreko alkatearen arabera, zabortegea kudeatzen dauan enpresek halan esanda, jakin dabe, Zaldibargo hondakinak Igorrerara ekarteko, Eusko Jaurlaritzaren aldetik "dei ugari jaso dabezala baina ezezko biribila emon deusielan".

### Makatzak talde ekologistea

Ingurumenagaz kezkatuta dagozan hainbat arratiarrek Makatza talde ekologistea sortu eben igaz. Batzarrak zabalak dira eta ingurumen edo ekologiararen alde lan egin gura dabenak parte hartu daikie. Batzarrok, Arratiako herrietan izaten dira. Hurrengoa martiaren 10ean, 19:30ean, izango da Diman; hilaren 24an, Artean; aprilean Areatzan; maiatzean, Zeanurin eta Arantzazun, eta bagilean Lemoan.

Etxeetan zaborra gitxituteko, batez be plastikoak, tailerra antolatu dabe martiaren 11n, 19:00etan, Igorreko Kultur Etxean.



publizitatea  
94 631 73 14 eta 649 979 115

[www.begitu.org](http://www.begitu.org)

Gugaz harremanetan ipinteko  
94 631 73 14 eta 649 979 112  
[begitu@topagunea.com](mailto:begitu@topagunea.com)



## BEDIA

**Correosek eta BBK-k bulegoak zarratu ditue****Erredakzioa**

Astegunetan 09:00etatik 10:00etara Bedian zerbitzua emoten eban bulegoak zarratuta ebatzi dau Correosek. Hemendik aurrera, paketeak eta korrespondentzia

Lemoan hartu beharko dira. Bedia udal aldizkariaren arabera, Udala negoziazioetan ibili da arduradunakaz, baina ez dau lortu Correosek zerbitzua mantendutea. Izan be, Correos plantillea murrizten dabil eta zonaldean 4 beharginetik 3ra pasauko da.

Antzekoa gertatu da BBK-ren aurrez aurreko zerbitzuagaz. Bankuak be atzen urteotan bulegoak zarratuten eta kutxazainak murriztuten dabiz eta Bedian BBK-k aurrez aurreko zerbitzua emoteari itxi deutso. Kutxazainak operatibo jarraituten dau Bedian.

## ZEANURI

**ELAntartida dokumentala eta Dar Dar alkartekoak barriketaldia Zeanurin****Erredakzioa**

Martiaren 14an, 19:00etan, *ELAntartida* dokumentala ikusi ahal izango da Zeanurin. Dokumentalean, Antartikako mendirik altuena, Vinson mendia, igongo dau Unai Llantada mendizaleak eta beragaz batera, AEAK (Alboko Esklerosi Amiotrofikoa) jotako Pablo Olmosek, modu fisikoan ez bada be. Biak 17.200 kilometroko gogozko sokada batek lotuko ditu eta esperientzia hori kontetan dau dokumentalak. AEA gaixotasuna daukienen Dar Dar alkarteko kideak be izango dira Zeanurin

gaixotasunaren barri emoten.

Dokumentaleko protagonista dan Unai Llantada egotekoa da do Vinson mendia eskaletan bizi izandakoa azalduten; Pablo Olmos barriz, ez, gaixotasuna oso aurreratuta daukalako. Baina Dar Dar alkarteko beste batzuk egongo dira sintomak, eboluzioa eta gaixoen egunerokotasuna azalduten; tartean, Igorren, Walter Pack-en behar egiten dauan Jaime Lafita. Lafitaren esanetan, dokumentalak, "egoera txarrak gaintzeko indarra, laguntasuna eta solidaridadea moduko baloreak transmitidu gura ditu".



## ZEANURI

**Mailegua hartu gura dau Udalak 2020an inbersinoak egiteko****Erredakzioa**

Zezeilaren 20an onartu ziran 2020ko Zeanuriko aurrekontuak, EAJ-PNVren aldeko botoakaz eta EH Bilduko kontrakoakaz. Holan, 2.100.000 euro kudeatzea onartu dau Udalak, igaz baino 250.000 gehiago. Igoera horretarako, 250.000 euroko mailegua hartzea aurreikusuten dau Udalak.

Aurrekontuetan agertzen diran inbersinorik handienak, udaletxea eta beste zerbitzu batzuen irisgarritasuna hobetzeko izango dira. "Lau urteetako inbersino potentek aurreikusuten doguz. Batez be saneamentuan eta udal eraikinetan egingo dira lanak" azaldu deutso BEGURI Eider Ajuriagerra alkateak. Udaletxean, Correosen eta Bake Epaitegian egin gura ditue lanok. Udaletxearen berrantolaketea 2020an egitea espero dau alkateak. Correos eta Bake

Epaitegi zerbitzuak, "zero kotan" ipini gura ditue; hau da eskailera barik.

Igaz, inbersino handia egin zala herriko bideak konponduten eta aurten be horretan jarraituteko asmoa agertu dau Ajuriagerrak.

**Kirola egiteko laguntzak**

Diru laguntzen artean aitatzekoa da, Areatzako ugerlekuetarako eta Igorre eta Lemoako kiroldegietara joateko diru laguntzak



## ARRATIA

**Erein enplegurako diru laguntzak eskatu daitezke martiaren 20ra arte****Erredakzioa**

Zezeilaren 19an argitaratu zan EHAAn, landa-eremuen ekonomia garatzeko eta dibersifiketako entitate pribaduak zuzendutako diru laguntzen agindua. Dirulaguntzok, Autonomoen erregimenean alta emoteko, beharginak kontratatuko, inbersinoak egiteko enpresa barrietan, edo honeek handitu edo dibersifiketako eskatu daitezke.

Diru laguntzak finantzietako baliabide ekonomikoak, Euskal Autonomia Erkidegoko 2020ko Aurrekontu Orokorretatik aterako dira. Izan be, jarduera ekonomiko dibersifiketako 85.000 euro, mikroenpresak sortu eta garatuko 715.000 euro eta enplegua sortzeko 25.000 euro dagoz.

Diru laguntzen gaineko informazioa Areatzan dagoan Gorbialde Garapen Elkarteko bulegoan eskatu daitezke.

## IGORRE

**Txema Auzmendi kazetari jesuitea Arratian****Erredakzioa**

Arratiako Eleizeak konbidautu, martiaren 7an, 10:00etatik aurrera, Auzmendi Igorreko parrokiaren egongo da *Jesusen Jainkoa=Maitasun Jainkoa* izeneko gogoetea animetan. Izan be, kazetari izateaz gainera, teologoa be bada Auzmendi.

Hamazazpi urte igaro dira Euskaldunon Egunkaria itxi ebela eta preso eroan eta tratatu txarrak eta torturak jaso zituan bertako langilean zan Txema Auzmendi jesuiteak. Zazpi urte beluago, epaileak absolbidu egin ebezen. Cuban emon dauz urte asko Txema Auzmendik eta oin Euskal Herrian bizi da.

**belagorri**  
mediku naturalista  
argaltzeko terapia  
kosmetika naturala  
elkagai biologikoak  
zelakontzari elkagaiak  
estefiziena  
Zamakoa, 9 - 48960 Galdakao  
94 600 21 12 - 94 600 87 56  
L. Agirre, 9 - 48140 Igorre  
94 631 14 39

**Olaxte**  
Graduazinoak  
Ikusmen terapia  
Ikusmen gibusua  
Begiko tentsioa  
Lentilen adaptazioa  
Kiroletarako betaurrekoak  
Sabino Arana 3, 48140 IGORRE (Bizkaia)  
94 657 70 03 - olaxteoptika@hotmail.es

**J.A. IZQUIERDO**  
PINTURA LANAK  
MOKETA · SINTASOLA · PAPERAK  
Elizkolda, 33 D - 1ºB - 48140 IGORRE (Bizkaia)  
Tel. 94 631 54 82 - 908 854 018

**Kili~Kili**  
Amopu eta Puntuko  
Lehendakari Agirre 10 - IGORRE (Bizkaia)  
Tel.: 94 673 43 81

**Zugaitik BEGITUten dogu**  
A.P.I. 495  
[www.inmobiliarialarrea.com](http://www.inmobiliarialarrea.com)  
Lehendakari Agirre, 8 behea  
48140 Igorre  
Tfnoa: 94 631 80 04

## ARRATIA

### Foru Aldundiak baimenik emon ez arren REEek torre bat egin dau Igorren



Igorren 2018an egindako konzentrazioa.

#### Erredakzioa

Bizkaiko Foru Aldundiko Iraunkortasun eta Ingurune Naturaleko Sailak urtailaren 14an emondako Foru Agindu baten, Red Electrica Españolaren (REE) Bizkaiko Lurralde Historikoan, energia garraiatzeko 400 kv-ko zirkuitu bikotzeko Gueñes-Itsaso linea baimentzeko eskaerari ezezkoa emon utsan. Ha-ta guzti be, REEek obrak jarraituten dau eta Igorren torre bat eregi dau Igorrebaso inguruan. Torrea urtailaren 14ko Foru Aginduaren ondoren eginda dagoanez, Igorreko Udala Foru Aldundiagaz kontaktuan ipini eta "Iraunkortasun eta Ingurune Naturaleko Sailari eskatu deusagu jagokozan neurriak hartu eta baimenik bako obra guztiak gelditu dagiazala" azaldu deutso BEGITUri Illart Gumuzio alkateak. Horrezaz gainera, Igorreko Udalak, Gueñes-Itsaso goi-tensinoko linearen obrak geratzeko neurri kautelarra eskatuta dauka epaitegian.

#### Goi-tensinoko linea

Gueñes eta Itsaso arteko goi-tensinoko lineak 4.000 voltako tensinoa izango dau eta Zeberio, Bedia, Lemoa eta Igorretik pasauko da. Igorrek proiektua geldituteko edo behintzat, Igorretik pasau ez daiten, oin arteko aukera guztiak erabili ditu.

2011n aurreproiektuari alegazioak aurkeztu eta Aldundiari eskatu utsan sai zuriaren inguruan txosten bat egiteko. Izan be, inguru horretan sai zuriaren hainbat habia dagoz eta hegazti hori babetuta dago. Sai zuriaren babesaren legea izan da Udalak erabili dauan proiektuaren kontrako tresna nagusia. Alegazioen erantzuna 2016an heldu zan Udalera. 2017an heldu zan Gueñes-Itsaso linearen Baimen Administratiboa eta 2018an, Udalak gora joteko errekursoa aurkeztu eban Baimen Administratiboaren kontra.

## ARRATIA

### Aldarrikapen feministez osotutako martiatik harago doan kartela

Martiaren 8aren inguruko Arratiako talde feministak, andra taldeak eta erakundeak antolatutako kartel bateratuak, martian zehar eta aprilera arteko ekintzak jasoten ditu. Hile luze honetan, justizia feminista eta feminismo baltzaren inguruko berbaldiak; aukera bardintasuna, askatasuna eta andren burruken gaineko antzerkiak eta dokumentala, eta mendi martxea be egongo dira. Mendi martxea, hilaren 29an izango da eta partaideak Upo mendira igongo dira. Hitzordua 09:30ean Areatzako ugerlekuen ondoan da.



Martiaren 8aren inguruko mendi martxetako bat.

#### Erredakzioa

Martiaren 8ko manifestazioari jagokonean, Bilboko manifestazioa aurten eguerdian izango da, domekea dalako. 11:45ean Lemoako tren geralekuan edo-eta 12:50ean, Areilza Doktoorea kaleko metro urtekeran batuko dira arratiarrak "Arratiako zutabea" osotuteko, "Arratiarrok antolatuta borroka feministarako" lemapean. Manifestazioa 13:00etan hasiko da Bilboko Bihotz Sakratuaren plazan.

#### Feminismo erradikalak eta baltzak

Kartel bateratuaren lehen ekintza, Ane Labaka bertsolaria eta Bea Egizabal antzerkilari eta ipuin kontalariaren *Erradikalak ginen* bertso eta bakarriketa bidezko umorezko ikuskizuna izango da, martiaren 4an, 18:00etan, Dimako eskolako kamarinan. Labakak eta Egizabalek, *Erradikalak gararen* bigarren parte honetan, "neska gazte promesa" etiketeaz, zahartzeaz, gorputzaren aldaketaz, sexualidadeaz, merkadu patriarkalaz, interseksionalidadeaz, bildurraz, biolentziaz eta andrak zeharkatzen dituen beste hainbat gaiz kantauz eta kontauz, barrea eragingo deuse hurreratzen diranai.

Hurrengo egunean, martiak 5, Jeanne Rolande egongo da Le-

moako Kulturunean, 19:00etan, *Feminismo beltzak* berbaldia emoteko. Rolande ikertzaile eta ekintzaileak Euskal Herrira etorritako andra afrikar migratzaileak topetan dituen diskursoak, praktikak eta errepresentazioak ikertu ditu, baita andra euskaldun baltzak topatzen dituen oztupoak aztertu be. Euskal Herrian dagoan errazismoa onartu eta feminismo dekoloniala sortzeako beharraz be egongo dau berba.

Martiaren 6an, 19:00etan, Atx konpainiaren eskutik *Zazpiak bat* antzezlanaren ikusteko aukerea egongo da Areatzako Udal Aretuan. *Zazpiak bat, gaiztoetan gaiztoena* da antzezlanaren izenburu osoa. Pekatu nagusiai egiten deutse erreferentzia eta pekatuak sortzean daben erpresinoaren gaineko hausnarketea da komedia hau. Pekatuak gainditzeko iraultza proposatzen dabe protagonistak.

Hilaren 7an, Zeanurin, *Bakean dagoena, bakean utzi* antzerki emonaldia egongo da 19:00etan Kultur Etxean. Lan honetan, Mirari Martiarena eta Idoia Torregarai artistak, umorezko sei bakarriketa lotuko dabez.

#### Ipuin kontalariak, dokumentala eta berbaldia

Hurrengo ekitaldi biak ipuin kon-

taketak izango dira. Lehenengoa, umeentzako izango da, Bediako liburutegian, hilaren 9an, 18:30ean. Han, Ines Bengoak, *Berdintasuna maite dugulako* izenburuko 5 eta 12 urte bitarteko umeai zuzendutako genero ikuspuntua daukien ipuin dibertigarriak kontauko deutsez.

Martiaren 18an, barriz, Mireia Delgadok *Kontatu ez dizkidaten istorioak* izenpeko ahozko narrazio saioa egingo dau Arteako Andran Gelan, 20:00etan. "Badira kontau ez euskuezan ipuinak. Horreen artean, badira nagusitan lapurtu doguzanak, gure azalean bizi izan doguzanak zein sekretupean nonok pasau deuskuzan istorio eta ipuinak. Badira be irakurri egin doguzanak. Kontau ez deuskuezan istorio horreetako batzuk kontau gura deusuedaz". Holan aurkezten dau saioa Delgadok.

Igorreko Kultur Etxean izango da hurrengo ekintza. Martiaren 26an izango da, 19:00etan. Setem Hego Haizeak egindako *Fabricando mujeres* dokumentala ikusi ahal izango da eta dokumentalaren ostean solasaldia egongo da egileakaz. Euskadin, Madrilan, Txilen eta Medellinen filmautako dokumentala Setem Hego Haizeak egindako *¿Consumimos violencia?* lanean oinarritzen da, eta konsumo konbentzionalaren eta indarkeria matxisten arteko ha-

rremanaz hausnartzen dau. Itziar Aizpuru aktoreaz gainera, beste batzuen artean Silvia Federicci, Yayo Herrero, Yolanda Jubeto eta June Fernandez feminismoan adituak agertzen dira.

Amaitzeko, aprilaren 2an, 19:00etan, Arantzazuko Kultur Gunean, garrantzia handiko gaiari helduko deutso Begoña Zabalak bere *Kontrol penal eta feminismoa* berbaldian. Izan be, justizia feministari buruzko hausnarketea eragingo dau hizlariak.

#### Beste ekintza batzuk

Kartel bateratuan agertzen diranaz gainera, herri batzuetan beste ekintza batzuk be antolatu ditue. Diman, zezeilearen 29an hasi ziran kartel feministak eginaz martiaren 8a prestatzen. Izan be, egun horretan, kartel feministak diseinetako tailerra egon zan, Torontileren eskutik eta partaideak herrian ipinteko eta Bilboko manifestaziora eroateko kartelak egin ebezan.

Martiaren 5ean, 20:00etan, zineklubak Kelly Reichardt-en *Certain Women* filma proiektatuko dau. Hurrengo egunean, Igorreko liburutegian, *Cómeme la flor* liburuaren aurkezpena eta ondoren idazleagaz barriketaldia egongo da 19:30ean. Zeanurin, kosmetiko naturalen tailerra egongo da 17:30ean Kultur Etxean eta Zeberion, Kancaneo Teatrotan *+D2Impro* ikuskizuna 19:00etan udaletxeko bigarren solairuan. Artean jantza moderno erakustaldia plazan 18:45ean eta hilaren 15era arte, harresi morea eta hizki zopa jokoa herritik zehar.

Hilaren 7an, urteroko afaria izango dabe Dimako andrak, 21:30ean Ugatxa tabernan. Aurretik, 19:00etan, poteoa egingo dabe Axl tabernan hasita eta afalostean, kontzertu parte hartzailea.

Martiaren 12an, Zeberion, arrastiko 19:00etan, Irantzu Varelaren *El feminismo hoy. Situación y retos* berbaldia egongo da udaletxeko bigarren solairuan Austarri Kultur Elkartek antolatuta. Eta martiaren 15ean, 12:00etan, Andrak plazara(tu), andra sortzaile eta ekintzaileen azokea egongo da Dimako plazan.



Atx Teatrotan *Zazpiak bat*.

LETICIA GUTIERREZ VALDERRAMA

# Europa eta Mexikoko mugetan krimen antolatuaren praxiak bardinak dira

Mugak Zabalduz Karabaneak Artean egindako topaketetan parte hartu eban Leticia Gutierrez Valderrama migratzen daberen personaren eskubideen defensorak. Helburu hori daukan kongregazinoko monja da Gutierrez. 2007tik 2012ko zezeilera, Giza Mobikortasunaren Pastoraltzako idazkari ejekutibo egon zan Mexikon eta han hainbat migratzaileentzako harrera etxe sortu eban. Defendatzaile lan horretan, Gutierrezek aurre egin deutse AEBko eta Mexikoko gobernuai, eleizeari, mafiai eta migratzaileen eskubideen kontra dagozan guztiai. 2018tik Espainian dago, Europara datozanai lagunduten.

Europa eta AEBko politika migratzaileak, alde bietako migratzaileen aldeko gizarte eragileak eta karabanak izan ditu berbegai BEGITUguz.



## Erredakzinoa

### Monja zara. Zein kongregaziotakoa?

Bai, erlijiosoa naz, scalabriniana. Kongregazioaren izena italiar abizen batetik dator, fundatzailearen abizenetik, hain zuzen be. Gure kongregazioa Piacenzan, Italiako iparraldean, jaio zan, 1895ean. Scalabrini apezpikua, oso bisionarioa zan eta XIX. mendearen amaieran italiar migratzaileen alde agertu zan. Gure zeregin nagusia munduko biztanle migratzailei lagundutea da.

### Orduan kongregazio bat dago migratzaileakaz lan egiteko sortu zana?

Bai, hori da gure misinoa munduan. Lau kontinentetako 28 herrialde baino gehiagotan gagoz kongregazinoko androk. Gizonak

beste herrialde batzuetan dagoz, baina gu, 28 edo 29 herrialdetan.

Oin, 2018ko garagarrietik, Espainian nago, Sigüenzako (Gudalajara) eleizbarrutiko Migratzaileen Ordezkaritza lanetan. Han, egoitza eta komunitatea daukagu, eta migratzailei eta errefujiaduari laguntzen jarraitzen dot.

### Zein da Espainian egiten ari zaren lana?

Batez be, populazino migratzaile eta errefujiaduari gizarteratzen lagunduten deusagu. Monja bi gagoz eta bestea Caritasen proiektuez arduratzen da. Ni Migratzaileen Ordezkaritza nago. Boluntario talde bat be badaukagu; batez be andra migratzaileak osotu dabena, eta ekintzak egiten ditue. Danon artean, inklusio lanaren proiektuari egituratxo bat emoten deusagu.

### Eta Mexikon, zein zan zure lana?

Mexikoko errealitatea beste bat da. 2007tik 2012ko zezeilera, Giza Mobikortasunaren Pastoraltzako idazkari ejekutibo lanetan ibili nintzan, Mexikoko Gotzainen Konferentzian. Arduradun lege gotzain bat egon arren, zati operatibo guztia, pastoralaren garapen guztia, nire ardurapean egoan.

Nire ardura zan, Mexiko osoko eleizbarruti guztiak migratzaile prozesuetan migratzailei lagundutera animetea. Mexikon, gerra egoera bizi dogu. Mexikoko Gobernuak, narkotrafikoari eta kartel bortitzen deklarautako gerrea. Herritarrak aurea hartu eben, migratzaileak bizi eben egoerearen barri emoten. Eta premia horrek migratzaileen eskubideen aldeko sarea eregitzea ekarri eban.

### Mexikoko biztanleria migratzailea, nondik migratu ohi da?

Batez be, urte hareetan, gure harrera etxetara ailegetan ziran gehienak hondurastarrak, salvadortarrak, guatemaldarrak eta nikaraguarrak ziran. Horrek ez dau esan gura beste populazinoarik ez egoanik. Kontua da hegoamerikarrak (ekuatortarrak, brasildarrak...) ez zirala heltzean eleizaren egiturearen barruan egozan harrera etxeen ibilbidera. Sasoi historiko haretan, beste migratzaile prozesu batzuk eukiten ebezan horreek; baita kubatarrak be.

### Zergaitik izan ziran migratzaileak narkotrafikoaren aurkako gerran eraso bortitzenak sufrituteren ebezanak?

Modu irregularrean migratzaile delitua zan, eta migratzaileakaz batera joaten ginanok "trafiko sarearen" parte ginan. Horrek

ahultasun handiko egoeran ixten eban personak, delituen bat sufrituten eban persona migratzaileak ez eukalako justiziara joteko aukerarik. Izan be, Ministerio publikoak, migratzaile batek jasandako delitu batengaitik salaketa bat tramitatu aurretik, migratzaile estatua galdetzeko betebeharra eukan; eta egoera irregularrean egoan persona izan ezker, bere herrialdera itzultzeko, kanporatzeko edo deportatzeko, Immigratzaile Institutu Nazionalari horren barri emon behar eutsan.

Estaduak eragindako eskubide gabezia horrerik esker, populazino migratzaileak talde kriminalen biktima izateko aukera handiak eukazan. Gainera, Gotzainen Biltzarrean Migratzaileen Pastoraltzako animazioan lan egiten neban lehenengo aldi haretan, migratzaile masiboa zan. Egun baten tren bat heldu eitekean 1.500-2.000 personagaz. Eta batzuetan, goizean tren bat heltzean zan jente kopuru horregaz, eta arrastiko bostetan beste tren bat 300, 400 edo 500 personagaz.

Narkotrafikoari egindako gerra deklarazioa (2006-2019) hondamendia izan zan eta izan da Mexikorentzat, eta handik pasau diran populazinoak kaltetuak izan dira. Krimen antolatuak, instituzioak aitortu ez arren, *de facto* autoritatea izan da eta izaten jarraituten dau lurralde askotan.

Holan, krimen antolatuak hainbat delitu antolatu eta personaren trafikoa egituratzea eta kontrolatzea lortzean dau. Gainera, egiten ziran delitu guztiak (migratzaileak bahitzea, torturatzea, hiltea, erreskateteagaitik

"Maila globalean manejetan diran politika ekonomikoak kriminalak dira. AEBk eta Europar Batasunak politika ekonomiko hiltzaileak ditue"



# Hermana Lety, poderetsuenai aurre egiten deutesen andra

Erredakzioa

"Hermana Lety" esaten deutesie Leticia Gutierrez Valderramari Mexikon. Giza eskubideen defendatzaileak aurre egin deutse podere guztiai; mafiak eta Mexikoko presidentea, barne. Gizarte zibiliai barriz, errekonoziduten deutso migratzaileak lagunduten eta sufriduten dabezan abusuak salatuten egiten dauan lana eta Don Sergio Mendez Arceo Giza Eskubideen Sari Nazionala emon eutsan 2017an.

2018tik Espainian dago hermana Lety, Alfa y Omega astekari katolikoaren arabera, "Peña Nietoren agintaldian Mexikon izandako esperientzia gogorretatik atsedean hartzean, bere bururakara



itzuli aurretik".

Baina esperientzia gogorak, Peña Nieto presidentetzara heldu aurretik hasi ziran. Izan be, 2008an, monjea bizirik erre-

tzen saiatu zan jente talde bat. "Alejandro Solalinde abadeak gogoratu ohi dauanez, 2008an, andra txatxar hau, Oaxacako migratzailez betetako aterpetxeari

gasolina bidoiakaz armata, su emon gura eutsan jentetzearen aurrean jarri zan, bere laguntzaileak iges egiten eben bitartean" dino Ricardo Benjumak igaz sinatutako Alfa y Omega aldzkari digitalak argitaratutako artikulu baten. Gehiagotan be aurre egin behar izan eutsan egoera arriskutsu horri.

Izan be, txarto hartu eben askok Gutierrezek bizitutako "iraultza". Erljiosa honek migratzaileentzako ehunka harre-  
ra etxe katolikoko sarea sortu, giza eskubideen defendatzaile zibilakaz indarrak batu eta legean aldaketa garrantzitsuak lortu ebazan eta.

Eta burruka horretan, eleizea eta presidentegaz egin eban topo. Agerkari katolikoaren arabera, 2013ko urtailean, gozainak Leticia Gutierrezek Giza

Mobikortasunaren Pastoral-tza ixtea eskatu eben, PRI alderdiko Enrique Peña Nieto presidentegaz "eukazan tensinoakaitik".

Hermana Letyk aurre egin deutse gasolina bidoiakaz su emon gura eutsan jentetzeari, mafiari, funtzionario ustelari, presidenteari... eta Espainian "atseden hartzean" egon arren, ez dau burrukea baztertu, ezta Mexikoko migrazino politikea albo batera itxi be.

Espainian egon arren, aurtengo urtailean be bere desadostasuna agertu eban Alejandro Solalinde abadeagaz. Holan, Vida Nueva eleizearen agerkari digitalaren arabera, Solalinde abadearen ustez Mexikoko "Guardia Nazionalak migratzaileen giza eskubideak azkimentuagaz jokutzen" dau. Gutierrezek barriz "Gobernu Federalaren migrazino politikea, errepre-sioa, oldarkorra eta bortitza" dala erantzun eutsan.

Atsedeenik ez.

kobretea...) irabazi handiak ixten ebazan, negozioa handia zan. Horregaitik, migratzaileak edozein delituren objektu bihurtu ziran.

## Egoera latz horren aurrean, zer egin zenduen giza eskubideen defendatzaileak?

Indarkeriazko testuinguruak eta egoera larriak bultzatuta, eleizea eta gizarte zibila eskubide defendatzaile bihurtu ginan. Defendatzaileok iragarri egiten genduan etorrena, baina, baita salatu be migratzaileak sufriduten dituen delitu, jazarpen, sarraski eta bortxaketa guztiak. Eta esperientzia honek berak behartu ginduzan formazinoa lortzera; hau da, lege-aldaketak egin ahal izateko prestakuntza tailerrak egitera, eta migratzaileak, eurak delituen salatzaile nagusiak izateko konzientziarazina bultzatzera.

2007-2012 aldia amaitu za-

nean, scalabrinari monjak ebatzi genduan lan horregaz jarraitutea. Hori dala-eta, beste kide bigaz batera Herrera Etxe bat sortzea tokau jatan. Delitu larrien biktiman diran migratzaileak, eta euren giza eskubideak defendituteagaitik mehatxatuta bizi diran Giza Eskubideen defendatzaileak lagunduteko erakundeak dira etxe horreek. Izan be, SMRk (Scalabrinianan Mision con Migrantes y Refugiados), errealidade bi horreek jorratzen ditu, eta 2018ko garagarriera arte egon nintzan han.

**Eta Europako mugetan dagoen egoerea, batez be Mediterraneo hegoaldeko mugakoa, zelan dago? Ze antzekotasun ditu Mexikoko migratzaileen egoereagaz?**

Antzekotasunak krimen antolatuaren praxi globalak dira, bardi-



Mugak Zabalduz Karabanakoak Artean egindako topaketea.

Igorre morea  
Igorre hobea

Martxoak 8.  
Emakume langilearen nazioarteko eguna.

IGORREKO UDALA

nak diranak leku baten zein bes-tean: *modus operandi* berbera, personen trafikoa, lekualdake-tarako erabilten dituen meto-doak (hemen paterak deitzean deutseguz, han cayucoak), ko-brantzak, bahiketak, estorsinoak, trailerretan egindako lekualda-tzeak eta pilaketa esperientziak, hain zuzen be.

Eta zer esan agintari eta mi-grazino politikai buruz! Zoritxa-rrer, han komunidadek amerikar moduan eta batasun amerikar moduan jarduten dogu, baina desabantaila handiagaz, migra-zino politikea AEBk marketan daukako, hau da, Washington-ek. Hemen be, munduko alde honetan, migrazino politikea Europar Batasuneko herrialde guztiak adostuten dabela su-posatzen da, baina egia esan, herrialderen batek bestelango migrazino politika bat egin gura badau, zigorra izango dau. Eta iruditzen jata alde horretatik be antzekotasuna dagoala. Baita, mugak kanporatzeari eta milita-ritzatzeari jagokonean be.

2007 ezkerotik, defendatzaile-lean aurkako indarkeria eta des-prestigiategia sistematizatu egin da. Izan be, mehatxatu egin gaitue, bizirik erretzen saiatu, izen ona kendu... Edozer asmatzen eben gure lana desprestigietako. Eta munduko zati honetan be erreskatatzaileak biziten gabi-zan praxia horixe bera da.

Antzekotasun handia be ikus-ten dot migrazino politikearen jardunean. Dana dala, hango moduan, hemen be konforme-tan ez dan gizarte zibil bat topau dot, migrazinoaren errealida-deari emoten jakon erantzuna humanizatu gura dauan jentea, migrazino politikearen alterna-tibea izaten saiatzen dana. Eta esperientzia horretako bat da gaur hemen Artean bizi dogu-na. Mexikon defendatzaile asko daukaguz, baina hemen be gauza bera ikusten dot nik. Eta aitortu beharreko zeozer da hori.

**Zer iruditzen jatzuz atzen urteotan egin diran Mugak Zabalduz Karabanak?**

Han, Mexikon, karabanak ez doguz inoz defendatzaileak bakarrik egin. Bideak migratzaileak egin izan doguz beti. Igaz, Mugak Zabalduz Karabaneagaz ibilbidea egiteko suertea izan neban, baina ibilbide hori migratzaileak batera egitea bota neban faltan. Esperientzia amerikar ha oso positibotzat jotzen dot, benetan lortu gendualako aldaketa lokal eta nazional batzuk egitea; hau da, eragin politikoa izatea, migratzaileak batera.

Nik uste dot hemen egiten di-ran karabana horreek, behintzat, Europako politikea ikusi arazote-ko balio dabela. Baina iruditzen jata eragin politikoren zati hori

be behar dogula.

**Zer egin behar da AEBk eta Europak migrazino politikea aldatu dagien?**

Maila globalean manejetan diran politika ekonomikoak kriminalak dira. AEBk eta Europar Bata-sunak politika ekonomiko hiltzai-leak ditue. Hau da, ezin da de-mokraziaz edo giza eskubideez berba egin giza eskubideak talde jakin batentzat bakarrik diranean. Gainerakook ez gara gizakiak? Ez gara personak? Ez gara sartzean Nazioarteko Itunetan?

Zer egin behar dan? Ba abe-rastasuna gitxi batzuen eskue-tan, gero eta persona gitxiagoren eskuetan gainera, ixten dauan sistema neoliberal kapitalista hau aldatu behar dogu.

Konturatu behar gara migra-tzaileak bizi dabena geuk be bizi dogula. Izan be, eskubide sozia-lak kolokan daukaguz, pensinoak ez dagoz ziur, osasun-eskubideak be ez dagoz ziurtatuta... Horretaz jabetu behar gara, eta kontzien-tzia horretatik politikariak egiten dituen politikak aldatzen saiatu eta sistemea edo eredu aldatzeko eskatu behar dogu. Bera bakarrik ez da aldatuko eta.

**Uste dozu momenturen ba-ten masa kritikoa egongo dala sistema kapitalista hau aldatzeko?**

Nik uste dot ekonomiaren eredu barri baten aldeko proposame-nak egin beharko gendukezala. Lehentasuna personak eta euren eskubideak izan behar dabe; izan be, barriro dinot, ezin dogula demokraziaz edo humanismoaz berba egin Medi-teraneoan jentea hiltzen dauka-gunean. Ez da zilegi begiak zarratutea eta pentsetea hau ez dala gertatzen ari.

Eta hau holan izango da Eu-ropa aberats bat eta Europa po-bre bat ezin dirala egon jabetu arte. Ezin dogu onartu. Badirudi Trump barriz hautatua izango dala, komunidadek amerikarrari ekonomia dalako gehien intere-setan jakona. Eta gauza bera ger-tatzen da Europar Batasunagaz. Batzuek pentsetan dabe eredu horri eutsi behar jakola, holan ondo gagozala, beste batzuek dirala pobrezia sufriduten dabe-nak...

Konzienziatzino hori egiten ja-rraitu behar dogu, eta gainera, eredu ekonomiko, politiko eta sozial barrietan pentsetan hasi. Eta herrialdeak, benetan autono-moak izan daitezkan, eta jentek bizimodua garatzeko eskubidea gauzatu dagian bere herrialde-tik atera behar izan barik, ondo bizi ahal izateko beste eredu bat behar dogu. Migrazino aukera bat izan behar da, eta ez aurrera aterateko derrigorrezko bete-beharra, gaur egun dan moduan.

## Jente migrantearen arazoek gaineko esperientziak Zeanuriko kafe tertulian

Ane Rilo

Zaporeak, Salvamento Maritimo Humanitario, Bizi eskola eta Carabana Centroamericana de Madres de Inmigrantes Desaparecidos jente migranteagaz diharduen talde eta alkarte honeen esperientziak konpartidu ziran Zeanuriko kafe tertulian.

Ongi Etorri Errefuxiatuak alkartearen eskutik zezeilaren zazpian Zeanuriko Eguzkiola alkartearen egoitzan proiektu honeetan parte hartu daben persona batzuen lekukotasuna ekarri eben. Besteak beste, Greziako Lesbos irlako migrante eta errefujiaduen kanpamentuetako bizimoduaz, herrialde batzuetako mugak zeharkatzeko arazoez, bidean dagozan personaren eskubideez eta helmuga daben herrietara ailegatzean harrerea zelana egin berbagai egon zan. Hogeta hamar lagun inguru batu ziran, gozokien artean, oso gozoak ez diran migrante eta errefujiaduen arazoek inguruko esperientziak bertatik bertara konpartiduteko.

Migrazinoaz ikuspegi bat baino gehiago mahaigaineratu eben. Migranteak oztopoak baino ez dabez bidean topatzen, eta are gaxagoa da boltsikoan diru gitxi euki ezker: "ezin badeutse coyoteak ordaindu, gauzak okertzen dira, mugak zeharkatzeko aukerea murrizten dalako" adierazo eben German Garciak eta Victor Sanchezek. Biak Carabana Centroamericana de Madres de Inmigrantes Desaparecidos alkartearen izenean parte hartu eben. Gainera, beste herri batzuetan hartutako erabagiak gogor astintzen dabe jente migrantea; esaterako, Estatu Batuetako presidentek behin eta barriro Mexiko mehatxatzen dau harresia altxatzeagaz, mugak hobeto kontrolatzen ez badauz. "Hori guztia oztoppo da Hegoamerikatik etortzen dan

jentearentzat, eta, nahiz eta igarobide barriak topau, Mexikora pasetako oin arte izan dan muga naturala, hau da, Guatemala eta Mexiko arteko muga, gero eta gaxagoa bihurtu jako Estatu Batuetara ailegetako asmoa daukan jenteari". Trenetan desagertzen dan jentek, bidean gertatzen diran bortxaketek eta jentek migranteak eskaintzen deuten babesaz be berba egin eben.

**Esperientziak**

Bestalde, Bizi eskola da Arrigorriagako herritar batzuk martxan ipinitako proiektua. Oin dala urtebete hasi zan proiektua, bizikletak konpondu eta alokatzeko alkarregaz behar egiten dabe Afrikatik etorritako hainbat lagunek eta Arrigorriagako jentek.

Beste esperientzia bat Zaporeak proiektuarena izan zan. Proiektu honetan dabilzanak beste gobernu kanpoko erakunde batzuetako partaideak behar egiten dabe, egunero milaka errazino prestetan dabe errefujiaduak jaten emoteko. Baina "guztiak ez daukie suerte bera" dino Izaskun Arriaran erizainak. "Beste kanpamentu batzuetan janari zerbitzua enpresa pribaduak kudeatzen dabe, janaria askotan ez da bape egokia bertan dagozanentzat; esaterako, kanpalekuan bizi dan jentek ez dauka janari hori zegaz berotu eta gatxa izaten da azpiletan zerbitzatzen dana zer dan jakitea. Horregaitik, askotan janariak edonon botata amaitzen dau", gaineratu eban Izaskun Arriaranek, Salvamento Maritimo Humanitario GKE-ko partaidea be badanak. GKE honek zerbitzu medikuak be eskaintzen dau: "jente piloak eta baldintza desegokiak arratoiak egotea ahalbidetzen dau, konsultan jente mordoak atenditzen dogu arratoiak usigiakaz". Aita Mari itsasontziaren proiektua be euren da.



Gure ibastetxeak

# Gure

ibastetxeak

Euskalduna

kalidadezkoa

herrikoia

<p><b>JB Eguzkiza Meabe HI</b> Tel.: 94 631 32 28 Lemoa</p>	<p><b>Ikastola Arratia HI</b> Tel.: 94 673 90 65 Artea</p>
<p><b>Ugarana HI</b> Tel.: 94 631 55 32 Dima</p>	<p><b>Arratia BHI</b> Tel.: 94 428 79 34 Igorre</p>
<p><b>Zubialde HI</b> Tel.: 94 648 06 82 Zeberio</p>	<p><b>Areatzako Herri Eskola</b> Tel.: 94 673 90 93 Areatza</p>
<p><b>Zeanuri HI</b> Tel.: 94 673 93 33 Zeanuri</p>	<p><b>I. Zubizarreta HLHI</b> Tel.: 94 673 60 22 Igorre</p>



www.begitu.org

---



---



---

Gugaz harremanetan ipinteko

94 631 73 14 eta 649 979 112

begitu@topagunea.com

---



---

begitu

arratia ubide zeberio

---

EMAKUMEEN\* NAZIOARTEKO EGUNA **MB** DÍA INTERNACIONAL DE LAS MUJERES\*

<p><b>MARTXOAK 4</b> Antzezlanak ERRADIKALAK GINEN Dimako eskolako kamaran, 18:00etan</p> <p><b>MARTXOAK 6</b> Antzezlanak 7AK BAT Areatzako Udal Aretoan, 19:00etan</p> <p><b>MARTXOAK 8</b> Manifestazioa ELKARREKIN BILBORA Lemoako tren geltokian, 11:45ean</p> <p><b>MARTXOAK 9</b> Ipuin kontalaria BERDINTASUNA MAITE DUGULAKO Bediako liburutegian, 18:30ean</p> <p><b>MARTXOAK 26</b> Dokumentala FABRICANDO MUJERES Igorreko Lasarte Aretoan, 19:00etan</p>	<p><b>MARTXOAK 5</b> Hitzaldia FEMINISMO BELTZAK Lemoako Kulturgunean, 19:00etan</p> <p><b>MARTXOAK 7</b> Monologoa BAKEAN DAGOENA BAKEAN UTZI Zeanuriko Kultur Etxean, 19:00etan</p> <p><b>MARTXOAK 29</b> MENDI MARTXA. Areatzako Igerilekuan, 9:30ean</p> <p><b>MARTXOAK 18</b> Helduentzako narrazio saioa KONTATU EZ DIZKIDATEN ISTORIOAK Arteako Andran Gelan, 20:00etan</p> <p><b>APIRILAK 2</b> Hitzaldia KONTROL PENALA ETA FEMINISMOA Arantzazuko Kulturgunean, 19:00etan</p>
---	---

# begitu

arratia ubide zeberio

## ez da debalde



**Emon gitxi, eta jaso asko. Badira, zure diru apur bat merezidu daben berbak. Izan zeu be Begitu-laguna!**

**begitu**  
arratia ubide zeberio

**2020AN EGIN ZAITEZ BEGITU-LAGUN!  
BEGITU-LAGUN EGITEAK SARIA DAIKA!**

Begitu aldizkariaren asmoa eten barik hobetzea da, beti be Arratia-Ubide-Zeberio inguruko euskerazko aldizkaria euki daigun. Baina horretarako baliabide ekonomikoak indartu behar doguz, Begitu bere buruaren jaube izan eta etorkizunari bermez eutsi ahal izateko.

Horretarako **2020an egin zaitetz Begitu-lagun!** kanpaina abiatu gura dau Begitu aldizkaria argitaratzen dauan Zertu Kultur Elkarteak, eta helburua argia da:

Arratia-Ubide-Zeberioko hamabostekari euskalduna babestuko dozu?

Aurreko hamabostaldiko irabazlea Itziar Urkiaga izan da.

Hori egiteagaitik **Areatzako Bainuetxean** lagun birezko zirkuitu termala + buffet menua zozketatuko dogu hurrengo hamabostaldian **Begitu-lagun** barrien artean.



**BAIETZ  
50 LAGUN  
BARRI EGIN!**

Oindino Begitu-laguna ez bazara, eta Arratia-Ubide-Zeberioko hamabostekaria babestu gura badozu, bete egizu beheko formularioa eta bialdu honako helbidera:

**Zertu Kultur Elkarte** Herriko plaza 24. 48142 Artea.


Izen-abizenak: \_\_\_\_\_  
Helbidea: \_\_\_\_\_  
Telefonoa: \_\_\_\_\_ Helbide elektronikoa: \_\_\_\_\_  
Kontu korrontearen zenbakia: ES \_\_\_\_\_  
Aukeratu urteko kuotea:  35€  55€  75€



\*Gainera Begituren produktu honeek helduko jatzuz etxera doban.

Edo e-mailez, bialdu datuok: [begitu@topagunea.com](mailto:begitu@topagunea.com) helbidera.

# SOLUZIOAK ALOKATZEN DITUGU



Basoak garbitzeko  
makineria



## ERAIKUNTZA ETA INDUSTRIARAKO SOLUZIOAK

# ALKIZABAL

ERAIKUNTZA, LOREZAINZA, EKITALDIETA ETA INDUSTRIARAKO  
MAKINERIA KONPONKETA ALOKAIRUA ETA SALMENTA

BOLUNBURU POLIGONOA  
Amorebieta - Lemoa errep.  
48330 LEMOA (Bizkaia)

Tel. 946 31 44 06  
Fax. 946 31 20 26  
alkizabal@alkizabal.net

[www.alkizabal.net](http://www.alkizabal.net)



## MENDIA

## VI. Kolazinoko Mendi Eguna Bizkaiko banakako eta taldekako Bizkaiko Txapelketea izango da



Antolakuntzakoak bidea prestatzen.

### Erredakzioa

Martiaren 21ean, Bedian Kolazinoko Mendi Eguneko VI. Edizioa, Bizkaiko Mendi Federazioak antolatutako dauan Mendi Lasterketetako Banakako eta Taldekako Txapelketea izango da. Ibilbideak 24 kilometro eta 1.600 metroko desnibel positiboa dauka.

Bizkaiko mendi korrikalari onak daukie zitea Kolazinoko Mendi Eguneko lasterketan. "Urtero legez, ibilbideak aldaketa txikiren bat dakar sorpresaren batez, ibilbidean izan ahal diran arazoak ekidin guran eta proba definituten dauan gogortasun hori erakutsiz" dinoe antolatzaileak.

BTTko lasterketan be izango dira aurreko urteetan izan diran lasterkaririk onenak; Julen Zubero eta Ainara Arroyo tartean. Bizikletako lasterketan be topauko dabe lasterkariak aldaketaren bat ibilbidean. Dana dala, ibilbidea beti bezain gogorra izango da.

### Izen emotea

Izen emoteak, [www.kolazinokomendieguna.com](http://www.kolazinokomendieguna.com) webgunean, erritmo onean doazen arren, oindino izena emoteko lekua dagoala dinoe antolatzaileak eta Kolazinoko Mendi Egunean lasterketetan parte hartu eta eguna Bedian pasetan animau gura dabe jentea.

## TXIRRINDULARITZEA

## II. Dima Master Saria

### Erredakzioa

Tiritu Ziklista Kirol Klubak II. Dima Master Saria antolatu dau martiaren 14rako. Bertan, M30, M40, M50, M60, Elite gizonak eta Elite andrazkoak neurtuko dira. Ibilbideak 78 kilometro ditu eta 760 metroko desnibela. Igorreko San Kristobal auzoan izango da mendiko saria. Izena, martiaren 10era arte emon daiteke [kirolprobak.com](http://kirolprobak.com) webgunean.

Partaideak 16:00etan urtengo dira Dimatik eta Undurragako presara abiatuko dira. Preseari buelta bi emon ostean, Igorreko



San Kristobal auzora igon eta Biterinotik jeitsi ostean, Dimara abiatuko dira barriro helmugarantz.

## PELOTEA

## Emakume Master Cupeko finalerdietara sailkatu da Amaia Alday

### Erredakzioa

Binakakoan dabil dimoztarra, Arrate Bergaragaz batera eta zezeilaren 29an Getarian lortu eben finalerdirako pasea, Laia Salsamendi eta Ane Mendibururi 18-17 irabazitako partiduan. Finalerdian Olatz Arrizabalaga eta Gentzane Aldai izango dabez aurkari.

Ainhoa Romero lemoaztarra eta Miriam Arrillaga ezin izan dira finalerdietara sailkatu.

Amaia Alday eta Arrate Bergarak asko sufridu eben pasea lortzeako. Ia ordu beteko partidu luzea izan zan eta puntu bakar batez nagusitu ziran. Izan be, partidu hasikera bikaina egin eben Salsamendi eta Mendiburu nafarrak 8-17ra heldu arte. Baina dimoztarrak eta bergararrak partiduari buelta emotea lortu eben. Partidu gogorra eta interesgarria

izan zan; batez be 17-17ra heldu zanean.

**Romerok eta Arrillagak galdu** Emakume Master Cupen dagoan Arratiako beste ordezkariak, Ainhoa Romerok, Miriam Arrilla-

gagaz batera barriz, 18-7 galdu eban Olatz Arrizabalaga eta Gentzane Aldairen kontra. Izan be, Olatz Arrizabalagak min handia egin eutsan Romerori, batez be sakean, eta lemoaztarrak pelota asko bota ebazan txapera.



Laia Salsamendi, Ane Mendiburu, Amaia Alday eta Arrate Bergara.

## MENDIA

## Alex Txikonek ezin izan dau aurten Everesteko tontorra neguan zapaldu

Zezeilaren 27an, Alex Txikonek eta bere taldeak amaitutzat emon eben aurtengo neguan Everestera igoteko saiakerea, ezin izan ziralako hirugarren kanpalekura heldu eta baimena zezeilaren 29an amaituten jakielako.

amaituten jakien eta.

### Edurra

Edur-jausiak topau ebezan hirugarren kanpalekurako bidean. Txikonen esanetan, eskaletan jarraitu ezker ez litzatekez bizirik bueltauko, "Lhotseko mendebaldeko hegala osoa gainera erortzen jakun" azaldu eban.

Lehenago be edurrak arazoak sortu eutsen lehenengo kanpalekutik bigarren kanpalekurako bidean. Edur apur bat espero eben, baina ez lehenengo kanpalekuan jausi ziran 70 cm-ak, ikuspena murriztu eta arrakalak estali egin ebazan, bidea "traidore" bihurtuz. Ha-ta guzti be, bigarren kanpalekura ondo heldu ziran. Atsedean hartu ostean, hirugarrenera abiatu ziran baina bertan behera itxi behar izan eben tontorrera heltzeako saiakerea, edur-jausiak ziralda-eta.



Alex Txikon.

### Erredakzioa

Hirugarren kanpalekura heltzearik ez eukiela ikusita, dana batu eta behe kanpalekura jeitsi ziran Txikon eta bere espedizinkideak.

"45 cm-ko edur ez egonkorra topau dogu Lhotseko horman eta hirugarren kanpalekura igotea lar arrakutsua da "azaldu eban Txikonek. Beste saiakera bat egiteko astirik ez eukien, baimena 29an



## SOKATIREA

# Lau domina Munduko Txapelketan Ruth Linaza Lemoako tiralariarentzat

Badaiotz taldeak urrezko domina bi lortu ebazan Irlandan jokaturako sokatirako Mundu Txapelketan 540 eta 500 kiloko kategorietan.

### Erredakzioa

Ruth Linaza Lemoako tiralariak zidarrezko beste domina bi be eskuratu ebazan, Basque Country ordezkatzen.

Zezeilaren 20an hasi zan txapelketea eta Badaiotz taldeak 540 kiloko kategorian urrea lortu eban Beti Gazte talde nafarrari irabazi ostean. Hurrengo egunean, 500 kilokoan be irabazi eben txapelketea Txinako Jingmei taldeari nagusituta. Badaiotz izan da talde honeri irabazi ahal izan deutsan bakarra. "Jingmei taldekoak profesionalak dira eta inok ez eban espero Badaiotzek irabazi ahal izatea" azaldu deutso BEGITURI Linazak.

Euskal Herriko selekzioak, Bas-

que Countryk, 540 eta 500 kiloko kategorietan, zidarrezko domina bi irabazi ebazan. Ruth Linaza podiumera igon ziran talde bi horreetan egon zan. Izan be, zezeilaren 23an, 500 kiloko kategorian, Basque Country selekzioa Badaiotzek ordezkatu eban, Txina-Taipeiren kontra neurtu ostean zidarra lortuz. 540 kiloko kategorian barriz, Beti Gazte taldeak ordezkatu eban Euskal Herriko selekzioa, baina hor be egon zan arratiarra.

### Euskal podiuma

Sokatirako Mundu Txapelketako andren 540 kiloko podiuma, Euskal Herriko hiru taldek osatu eben: Badaiotz Arabako taldeak, Beti Gazte talde nafarrak eta Gaztedi bizkaitarrak, hain zuzen be.



## TRINKETEA

# Ziarrusta anaiak Bizkaiko trinketeko txapeldunak

Zezeilearen 29an jokatu zan finala Abadiñon.



Lur Ziarrusta, Leire Atutxa eta Ekhi Ziarrusta.

### Erredakzioa

Dimako Txumuluxueta klubeko Ekhi eta Lur Ziarrusta, Jon Arana eta Asier Aspurren kontra neurtu ziran Bizkaiko Trinketeko Binakako Txapelketako finalean. Aranak eta Aspuruk etxean jokatu arren, dimoztarrak irabazi eben partidua, 40-21, Bizkaiko txapela lortuz. Euskal Herriko Trinkete Txapelketea maiatzetan jokatu da.

Partiduan ez zan ezustekorik egon. Abadinoztarrak ez eben euki partidua irabazteko aukerarik. Izan be, hasikeratik hartu eben aurea Ziarrusta anaiak eta partidu osoan

zehir holan mantenidu ziran.

### Joko ona

Finalerako pasea lortzeako, Txumuluxuetakoak, Aitor Arabiourrutia eta Eneko Uribe igazko txapeldunen kontra neurtu behar izan ziran zezeilearen 22an eta 40-23 irabazi eben. Partidu gogorra espero eben Dimakoak, baina euren jokoa egin ezkerro, irabazteko aukerak ebezala sinistuta ez eben hutsik egin.

Txapelketan sei bikote neurtu dira. Txumuluxuetakoak, sano txapelketa ona jokatu dabe, zazpi partidutatik bost irabazita.

## PELOTEA

# Imanol Arrese txapeldunorde Lezamako Txapelketan

### Erredakzioa

Imanol Arrese Lemoako klubeko pelotariak eta Aitor Etxebarriak ezin izan eben Lehenengo mailako Lezamako txapela irabazi. Izan be, 22-11 galdu eben, Iraitz Zubizarreta eta Endika Uriondo faboritoen kontra. Dana dala, txapelketa ona egin dabe Arresek eta Etxebarriak, txapelketea aurrera joan ahala, partidu hobeak eginaz.

### Oier Etxebarria

Egun berean, zezeilaren 28an, liga profesionaleko partidua izan eban Oier Etxebarria igorreztarrak. Etxebarriak eta Elordik galdu egin eben Larrabatzun Zabala eta Ruizen kontra 13-22. Etxebarria-Elordi bikoteak beste partidu bi jokatu ditu finalerdietan. Lehenengo martiaren 6an izango da Mallabian.



Oier Etxebarria.

# #GEROAMOREADA

1. Gure geroa MOREA nahi dugu, ez dago zalantzarik.

2. MORE hasi eta hezi nahi ditugu gureak eta mundua.


3. Errespetua, maitasuna eta elkarlana MOREAK dira.

4. MOREA ez da egun bat, morea bizitzan izateko modu bat da.

5. MOREA maitasuna oinarri duen iraultza feminista da.

6. Forma eta izen asko ditu kolore honek eta denak MOREAK dira.

M8-ARTEA



## ZINEKLUBA

## Lau andra amerikarren bizitzak zineklubean

## Erredakzioa

Igorreko Zineklubak Kelly Reichardt estadubatuarraren *Certain Women* (*Vidas de mujer*) pelikulea eskainiko dau martiaren 5ean, 20:00etan, Lasarte Aretoan.

Filma Maile Meloy idazlearen narrazio baten oinarrituta dago. Montanako herrirka baten dago girotuta eta kurutzatzen diran lau andraren bizitzak kontetan ditu. Laura (Laura Dern) abogadua da eta korapilatu egingo dan kasu baten dabil lanean; Ginak (Michelle Williams) bere amesetako familia eregi gura dau, baina oztopo ugari topatzen ditu; eta

Beth (Kirsten Stewart) zuzenbide ikasleak, hartu-emon anbigua hasiko dau Jamie (Lily Gladstone) zaldi hezitzaileagaz.

## Kelly Reichardt

Kelly Reichardt (Miami, 1964) idazlea, gidoigilea eta zine zuzendaria da. 1994an zuzendutako *River of Grass* eta 2016an zuzendutako *Certain Women* filmen artean, beste zortzi filmetako zuzendaria izan da. *Certain Women* filmak kritikearen hainbat sari jaso ditu; tartean, 2016ko Independent Spirit sarietako bi; bata zuzendariari, eta bestea Lily Gladstone aktoreari emondakoak.



## DIMETALFEST

## Ramstein metal taldearen kantuen bersinoak egingo ditu Akelarrek Dimetalen

## Erredakzioa

Dimetal jaialdiko antolatzaileak jaialdiaren aurtengo edizinoan, urri lehenengoaren 25 eta 26an egongo diran beste lau talde emon ditue jakitera. Bilboko Ferosz thrash/death metal taldea, Knives, crusting rock'n death egiten dauan taldea, Valkyria, heavy metala egiten dauana eta Arrasateko Numen, black metalerantza egiten dauan taldea, egongo dira. Baita Akelarrek, Sorluzen 1973an sortutako erromeria talde mitikoa be, Toto eta Ramstein lango taldeen rock bersinoak egiten.

Sorluzeko zazpikoteak Diman eskainiko dau 2020an egingo dauan kontzertu bakarra eta bertan, 90 minutuko ikuskizunean, taldearen diskografiari (16 lan) erreperasua egin eta metal estiloko kantuek bersinoak dabez.



## Online salmenta

Astegoieneko zein eguneko txartelak online erosi daitezke [www.dimetalfest.com](http://www.dimetalfest.com) webgunean. Astegoieneko txartelak papelean be erosi daitezke Dimako Baltzola tabernan eta Bilboko Iturribide kaleko El Metal tabernan.

## ZINEA

## Dimako zuzendari biren lanak Laburbira euskerazko film laburren zirkuituan

Euskaltzaleen Topaguneak antolatuten dauan Laburbiraren XVII. edizinoan 9 film egongo dira ikusgai 32 herritan. Film horreetako bi Diman ekoiztutakoak dira. Bata, Janire Etxaberen *Harria Herria* da eta bestea, Ibon Izaren *Mamarro*.

## Erredakzioa

Diman, martiaren 13an, 20:00etan, ikusi ahal izango dira eskolan, Areatzan, martiaren 27an, 19:30ean, Udaletxeko Areto Nagusian eta aprilaren 3an, 20:00etan Igorreko Lasarte Aretoan. Diman eta Areatzan, Ibon Iza zuzendaria egongo da jentegaz berba egiten.

Janire Etxaberen lana igazko Bilbao Mendi Film Festival-en egon zan eta aurtengo Mendi Tour-eko zirkuitua egin dau. Hori dala-eta, Igorren ikusteko aukerea egon zan zezeilaren 14an. *Harria Herria* lanak, gizakiak suntsitutako paraje natural baten, harrobi bateko hormetan, egindako jantza bertikala eta eskaladea buztartzen ditu, irudi zoragarriak betetako film ikusgarrian. Naiara Arrizabalaga, Maite Kaltzakorta, Janire Etxabe, Irune Uriarte eta Naia Negredo dira jantzari bertikalak eta eskalaztaile batek, Oreka TX taldeak, Miren Narbaiza kantariak eta Karmele Gisasola harri jasotzaileak be hartzean dabe parte Dimegaz Kultur Elkarteak sortutako film honetan.

Dimagaz loturea daukan beste filma, Ibon Izak zuzendutako *Mamarro* izenekoa da. Zuzendaria Igorren jaio eta Diman bizi da eta filma Diman grabauta dago, dimoztar askoren partaidetzeagaz. Umeen inozentziak, aurrerretxiek eta bildurrez egiten dau berba filmak. Gabriel Arestiren *Mundu munduan* liburuko *Joku arrisku-tusuak* ipuinean dago oinarrituta eta Josu Goikoetxearen *Zer luzea negu hau* liburuko *Mamarro* poematik abiatuta. Aktore lanak, Amaia Gorrotxategik, Iradi Izak, Olatz Olmok, Enara Gallastegik, Jare Izak, Txomin Gorrotxategik, Txaber Lazpitak, Amaia Haranburuk eta Zefe Ziarrustak egin ditue. Ibon Izak zuzendutako beste film labur batzuk, *Txakile* Bertsomovieda-n film labur onenaren eta publikoaren sariaren irabazle izan zana, *Astrapalea* eta *Elemakarrak* dira. Atzenengo hau, 2017ko Laburbiran be ikusi ahal izan zan. Urtzi Uriarte dimoztara eta Imanol Garcia eta Joseba Rodriguez igorretarrak dira film honetako produktzioan parte hartu daben beste arratiar batzuk.



## Bederatzi film labur

Saio bakoitzean, Dimakoez gainera, euskerazko beste zazpi film labur proiektuak ditue, ordutebete baino gehiagoko emonaldia osotuz.

Euskaltzaleen Topagunearen gidoiagaz Beñat Iturriozek zuzendutako *Gau Beltza*; Kamertoia 15. Ikus-entzunezkoen lehen saria irabazi eban Marilyn talde ondarrutarraren *Urak dakarrena*; Josu Martinezen *Anti*, Argentinan, Madrilan, Bilbon eta Lekeition saritutako lana; Amaia San Sebastian zuzendariaren *Tigre bat*; Kristina Zoritaren *Pil Pil*, Indiako zinemaldi baten estreinau zana; Yolanda Mazkianaren *Kateak*, eta Maitane Eyheramonhoren *Jauzi bat eta pxiit* dira ikusgai egongo diran beste zazpi filmak.

## Euskal Herrian eta kanpoan

Martiaren 10etik aprilaren 5era arte, 32 herritan izango dira bederatzi filmok. Arabako 5 herritan, Bizkaiko 8tan, Gipuzkoako 14tan, Nafarroako

baten eta London, Paris, Valladolid eta Valentzia urietan proiektuak dira euskerazko film laburrak.

## Laburbira

Euskaltzaleen Topaguneak antolatuten dauan Laburbira zirkuitu ibiltariaren helburu nagusiak bi dira: euskerazko sortzaileen lana ezetu arazotea euskeraz ekoizten jarraitu dagien aukerea zabalduz, eta ikusleak honek gozatu-tuteko aukerea emotea.

Azken hiru edizinoetan deialdi zabala egitea ebatzi dau Topaguneak, laburrak euskeraz egiten dabezan guztiak euren lanak aurkezteko aukera izan dagien.

Dimako emonaldia, Dimako Udalak antolatuten badau be, Areatzan eta Igorren Zertu Kultur Elkarteak antolatuten dau Laburbira, udalen laguntzeagaz. Zertu (BEGITU argitaratzen dauan alkarte) euskera alkarten federazioa dan Euskaltzaleen Topaguneako partaide da.





## ERAKUSKETEAK

### Felix Anauten lanen erakusketea Igorren



#### Erredakzinoa

Martiaren 4tik 27ra, Felix Anauten *Paper eta kartoi euskarridun 26 obra*. *Teknika mistoak* egongo da ikusgai Igorreko Kultur Etxeko Erakusketa Aretoan.

Anauten pinturagintzea abstrakzioaren linean dago. Fotomuntaketa figuratibo handiak be egin izan ditu. 2010etik bere lana Museo Britanikoan ikusi daiteke. Bere eskulturak irudi antropomorfoak dira.

#### Felix Anaut

Felix Anaut (Zaragoza, 1944) margolaria, zeramikaria eta eskultorea da. Bidaia geldiezina, Madril, Tangerren eta Ibizan bizi izan da. Christies-en zeramika ikasi eta gero, Londonera joan zan, eta Belfastera ondoren. Azken honetan 7 urtez bizi izan zan, eta Arte Garaikidearen Galeria fundau eban. 1989an Aragoira itzuli zan, Villanueva de Jilocara. Gero, Frantziako hegoekialdera joan zan biziten.

## LIBURUA

### Ainara Garcia Goitiandiak *Cómeme la flor* aurkeztuko dau Igorren

Zezeilaren 14an, San Balendin eguna aprobetxau eban Ainara G. Goitiandiak, sare sozialetan Bedarlari izenagaz ezaguna danak, maitasun erromantikoaren mitoaren gaineko berbaldia egin eta *Cómeme la flor* bere liburua aurkezteko Lemoako Udal Liburutegian. Liburuan, 25 narrazio feminista batzean dira eta Igorren be aurkeztuko dau martiaren 6an, 19:30ean, liburutegian.

#### Erredakzinoa

Dokumentazio lan handia egin dau egileak eta datu asko, zein andren testigantzak dagoz *Cómeme la flor* liburuko narrazioetan. Sexu hezkuntza, andran kontrako indarkeria eta amodio erromantikoa dira narrazioon gaitako batzuk.

Andren Nazioarteko Eguna os-

patuteko antolatu dau Igorreko Liburutegiak liburuaren aurkezpena, "andren eskubideak eta benetako bardintasuna" aldarrikatzeko, Iru- ne Elexpe liburuazainaren arabera.

#### Maitasun erromantikoaren mitoa

"Matxismo instituzionala da oinarria eta beste matxismoen

sorburu" esan eban Garcia Goitiandiak Lemoan. "Nik matxismoa populazioaren kontrol moduan ulertuten dot. Populazioaren erdiak beste erdia kontroletan daualako". Eta horretarako tresna bat maitasun erromantikoaren mitoa da. Maitasun erromantikoa "hartu-emon sentimental gizon eta andren artekoa (gizon eta andren artekoa bakarrik), heteropatriarkal eta kapitalistea" da.

Bere esanetan mito hau zazpi guzurretan oinarritzen da eta guzurrek andrai zuzenduta dagoz. Honeek dira mitoaren oinarriak: maitasuna betiko da; kontrola eta

zeloak normalak dira maitasuna dagoanean; maitasunak dana gaitutun dau; amodio erromantikoak familia eredu patriarkala planteetan dau; gauza zoroak egitea maitasunagaitik oso erromantikotzat hartzean da, (baina andranako eraso eta indarkeria estaltzen ditu); beste erdiaren bila dabiz naranja erdiak gara, eta bat-bateko maitemina. Desira eta maitasuna nahastu egiten dira maitasun erromantikoan, "bat-batekoa ez da maitasuna, desira sexuala da. Maitasuna, denporea, ardura eta enpatia da" azaldu eban Garcia Goitiandiak.



Zezeilean Lemoako liburutegian egindako liburuaren aurkezpena.



## KONTZERTUA

### Reincidentes taldearen kontzertua Igorreko Kiñu Gaztetxean

#### Erredakzinoa

Martiaren 13an, 21:00etatik aurrera, kontzertua egongo da Kiñu Gaztetxean. Hasikerako taldea Dientes de Luna Gernikako taldea izango da eta talde nagusia, Reincidentes, eszenalekuen gainean 30 urte baino gehiago daroan

Sevillako talde mitikoa.

Urte honeetan, 20 diskotik gora kaleratu ditue eta gizarteagaz kritikoa eta soziala dan rock musikea egiten jarraituten dabe. Euskal Herriagaz lotura berezia daukiela esan daiteke eta Fermin Muguruzagaz alkarlanean, euskal gatazkaren gaineko *Un pueblo* kantua

euren kanturik ezagunen artean dagoala esan daiteke. *Sahara adelante*, *Mexico levanta* edo *Resistencia* dira euren konpromiso politikoa erakusten dabezan beste kantu batzuk.

#### Dientes de Luna

Dientes de Luna Gernikako rock taldeak be joko dau Kiñu Gaztetxean. 2005ean sortu zan arren, 2011n egonkortu zan taldea. *Mas vale tarde* (2015), *Mi abril* (2017), *Utopista* (2018) eta *Atmosfera* (2019) lanak ditu kalean.

## DUNBA

### Zulaibar Lanbide Heziketa Eskola 4.0


#### Zulaibar Lanbide Ikastegia

Arratiako Zulaibar Lanbide Heziketa Eskoleak, industria 4.0gaz lotuta dauan proiektua daroa aurrera. Proiektu honetan zehaztasun handiko mekanizazio prozesuak kontrolau eta monitorizetako sistema bat garatuten dabil. Eskolan garatutako hardware, software eta lanabes bateri esker, prozesua kontrolatuteaz gainera, fabrikazioan sortu

daitekezan akatsdun piezak murriztea lortu gura da. Lehenengo probak eginda sistema egonkortuteko proba gehiago egingo dira.

Lan hau aurrera eroan ahal izateko, Wolco S.L. enpresearen laguntzeaz gainera, Bankia Dualiza programea eta F.P. Enpresa Fundazioa aitatu daitezke.

Azken bi honek lanbide heziketa eskolak barrikuntza proiektuak enpresakaz garatuteko babesa emotea daukie helburu-



tzat. Proiektu honeri esker, enpre-

searen munduan gaur egun erabilten diran teknika aurreratua

eskolara eroan ahal izango dira, ikasleai 4.0 tekniken inguruko oinarria emoteko.





# AKIMIKO

I  
m  
a  
n  
O  
l  
a  
t  
u



## IRAGARKI LABURRAK

### SALDU

#### SALGAI

Sueteko beheko parterako egurrezko armairua eta estalga, labea eta bitroagaz, merke saltzean dodaz. Txoko baterako aproposak dira. Deitu 657 777 542 zenbakira.

#### TREKKING BIZIKLETEA SALGAI

Kreidler (RT Raise) markakoa, taila handikoa, barri-barria; zikloturismoa egiteko beren-beregikoa. Prezio onean. Otzarea eta atzeko boltsak oparizat. Interesdunak deitu 685 711 598 telefonora.

### DANERIK

#### PARTZELEA ESKAINTZEN DOT

Lemoako Ajuriagerra kalean, kotxea aparketako partzela bat eskaintzen dot alokairuan. Interesdunak deitu 627 087 495 telefonora.

#### IRAKASLE BILA

2019-2020 ikasturterako, DBH 4. mailako Fisika eta Kimikako klase partikularrak emoteko persona bat behar da. Interesdunak deitu 620 607 952 telefonora.

### ZUME BILA

Zume bizi zein lehor bila gabiz; erosi ala trukea egiteko aukeran. Landan izan ezker, gu geu mozteko prest gagoz. Telefonoa: 655 709 771.

#### KLASEAK EMOTEN DIRA

Fisika, Kimika, Matematika eta Biologiako klase partikularrak emoten dira Igorren. Interesdunak deitu 610 682 961 telefonora.

#### JENTE BILA

Zaparrada Batukada Taldeko kide izan gura dozu? Animau! Zure zain gagoz! Ipini gugaz hartu-emonetan, [zaparradabatukada@gmail.com](mailto:zaparradabatukada@gmail.com) emailen, Instagramen [@zaparrada\\_batukada](https://www.instagram.com/zaparrada_batukada) helbidean edo [@zaparrada](https://www.facebook.com/zaparrada_batukada) helbidean Facebook-en.

**Zezer saldu, erosi, alokatu, trukea egin, behar edo behargin bila bazagoz, bidali asko jota 25 berbako mezu bat. [begitu@topagunea.com](mailto:begitu@topagunea.com) era. Mezuak doban dira.**

## Begitu-lagunen txokoa

### Zenbaki honetako saridunak:

1

**Kiñu Gaztetxeak emondako bina sarrera Reincidentes eta Dientes de Luna taldeen kontzerturako.**

Mateo Pagazaurtundua (Laudio)  
Iratxe Olabari (Igorre)



2

**Igorreko Kultur Etxeak emondako bina sarrera Azken balea antzezlanerako.**

Angel Larrea (Galdakao)  
Aratz Sagarna (Igorre)



Zerturen argitalpenak jasoko dozuz, zozketetan sartuko zara. BEGITUK 17 urte eta ehundaka lagun.

94 631 73 14 | [www.begitu.org](http://www.begitu.org) | [begitu@topagunea.com](mailto:begitu@topagunea.com)

umean medu  
**sem**  
e-16  
Agirre Lehendakaria, 31 • 48140 IGORRE  
Tfnoa: 94 631 92 96 • [semedu@hotmail.com](mailto:semedu@hotmail.com)

*Kepa Intxausti*  
TAXI ZERRITZUA  
609421222  
IGORRE

**Dia %**  
**PEDRO**  
**AUTOZERBITZU**  
Sabino Arana, 35 48.140 Igorre  
Tel. 94 631 15 26

**begitu**  
anaitza utzi ezker

Igorren  
**ARKITEKTOA**  
Aitzol Aurrekoetxea Pujana  
Lehendakari Agirre 23, behea  
[aitzol@coavn.org](mailto:aitzol@coavn.org) - 675 705 111

Recreativos Gubi S.L.  
Angel Larrea  
Zornotza Tfnoa 649 86 95 36

**KIRRU**  
ILEAPAINDEGIA  
ROSANA eta ROBER  
SABINO ARANA 38  
IGORRE  
Tf. 94 631 92 00

**Beer & Edariak s.l.**  
HEINEKEN SOLARES  
Polig. Mendaketa, s/n 48530 LEMOIA, Bizkaia  
Tel: 609 482 830 • 609 206 717

**ZUZENBIDE**  
ASEGURUAK: AUTOAK ETXEBIZITZAK  
AHOLKULARITZA: LAN ZUZENBIDEA ZERGAK KONTABILITATEA  
DENDAK ISTRIPUAK BIZITZA...  
Tlf. 94 673 71 41 - 94 673 70 55 - 94 612 11 96 - Faxa 94 612 11 96  
Sabino Arana 3. behea - Igorre (Bizkaia)

**BIXER**  
TABERNA  
Beko kalea, 2 - Tel. 94 631 73 65 - VILLARO

Jose Luis Corbacho  
**pintura lanak**  
Sabino Arana, 3. 3a  
Igorre 48140 Bizkaia  
Tel: 94-673-70-87  
Tel: 609-79-49-54

**ZEKUTZE**  
JATEXEA  
Tel: 94 631 52 83  
Sabino Arana, 34  
48140 IGORRE - Bizkaia  
[zekutzejatexea@hotmail.com](mailto:zekutzejatexea@hotmail.com)

*Pinturas Anaitia*  
Javi Morato  
Tel. 628 443 992

**BIZARGINAK**  
Ulea era klasiko eta modernoan ebagiten dogu. Bizkaia egin eta bukanduten dogu.  
Tel. 94 607 78 33  
Lehendakari Agirre 9, behea IGORRE



## Gure menu barriak

### Errukiñe menua

- Etxeko foie-micuit terrinea sagar eta jengibre pureagaz
- Ahate ensaladea, pistatxo ozpin-orio eta laranjeagaz
- Endibia tenperatura bajuan, jogurta, kaparrondoa eta morro-zukua

· Arrain-gisadua

· Etxeko arroz-esnea

32€

### Iturrimaur menua

- Leongo zezinea, errukulea eta Parmako gaztaia
- Eskabetxautako galeper ensaladea ozpinkiakaz
- Arrautzea tenperatura bajuan eta kipula-zopea txarriki kurruskariagaz

· Txipiroi freskoak plantxan

· Kokots iberikoak curry gorriagaz

· Limoi-krema eta frutea

43€

### 10. urteurren menua

- Ezkur urdaiazpiko eta solomo iberikoak
- Azafraidun muskuilu-zopea
- Hiru testuratako orburuak

· Piper morroakaz konfitautako makailaoa eta Idiazabal zopea

· Arkume terrinea cous-cous-agaz

· Mailuki eta arbekina emulsinoa

39€

### San Bartolome menua

- Ezkur urdaiazpiko eta solomo iberikoak
- Etxeko foie-micuit terrinea sagar eta jengibre pureagaz
- Ahate ensaladea, pistatxo ozpin-orio eta laranjeagaz
- Arrautzea tenperatura bajuan eta kipula-zopea txarriki kurruskariagaz

· Otarrainxkakaz betetako lebatza saltsa amerikarrean

· Txahal azpizuna goarnizinoagaz

· Brioche ogiagaz egindako tostadea

49€

\*Alkarbanatuteko iberikoen osogarria (5 euro personako) / Alkarbanatuteko entrekot osogarria (3 euro personako)

BEZa barne - Erreserba, gitxienez 48 orduko aurrerapenagaz egin behar da  
Informazioa eta erreserbak 94 657 27 05 eta [info@hotelbalnearioareatza.com](mailto:info@hotelbalnearioareatza.com) helbidean

Gitxienez 4 lagun - Lehenengo platerak mahai erdira zerbitzatuko dira - 4 laguneko botila bat ur eta botila bat ardao barne  
Kristalagaz inguratutako terraza estalia, erabilgarri badago - Ospakizun berezietarako tartak, konsultau gehigarria - Merkaduaren arabera  
[www.hotelbalnearioareatza.com](http://www.hotelbalnearioareatza.com)

